


**“Orain arte lortu
dudan garaipenik
garrantzitsuena da
eta pozarren nago”**

Illart Zuazubiskar Gallastegi
Txirrindularia • 20



**Gorka Lupiañez torturatu egin
zutela ebatzi du NBEko Giza
Eskubideen Batzordeak**

Durango | 2007an Guardia Zibilak atxilotu zuenean, presoak
torturak salatu zituen, eta NBEk fidagarritasuna eman dio. • 7. orrialdea



Lau urterako norabidea

Udaletarako, Batzar Nagusietarako eta Europako
parlamenturako hauteskundeak izango dira
domekan. Durangaldean 63.053 herritarrek
edukiko dute botoa emateko aukera, datozen lau
urteetarako norabidea erabakitzeko. • 2-5

**Metalgintzako
sektorean lehen
greba eguna
egin dute**

Durangaldea • Metalgintza
arloan eskualdeko enpresen
%90ek egin zutela greba azaldu
dute sindikatuek. • 10

Maiatzaren 15etik ekainaren 15era

**HILABETE
ITZELA**

6.400 €*
zure neurriko finantziazioarekin

SCHMIDT

Zu ez zarelaکو bestea bezalakoa

Murueta Auzoa z/g
Eroski Merkatal Zentroa
48220 Abadiño
www.homedesign.schmidt

> Batu zaitez geurera hemen



Maiatzak 26: herrien, Bizkaiaren eta Europaren etorkizuneko norabidea erabakitzeko eguna

Durangaldean 63.053 biztanle daude deituta domeka honetako hauteskundeetan parte hartzera



Orain lau urte, udal hauteskundeetarako mahaia Elorrioko kiroldegian.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Herrien, Bizkaiaren eta Europaren etorkizuneko norabideaz erabakitzeko eguna izango da domekakoa. Izan ere, herritar

bakoitzak hiru boto emateko aukera edukiko du: udalerako, Aldundirako eta kontinenteko parlamenturako. Durangaldean 63.053 biztanle daude deituta

hauteskundeetan parte hartzera. 09:00etan zabalduko dituzte eskualdeko hautes mahaiak, eta 20:00ak arte eman ahal izango da botoa.

Udaletan, 40. urteurrena

Udaletakoei dagokienez, aurten 40 urte beteko dira diktadura frankistaren osteko lehen hauteskundeetatik. 1979an izan ziren, eta dome-

kakoa hauteskunde mota horien hamaikagarren aldia izango da.

Durangaldeko herrietan, datozen lau urteetarako zelako gobernuak osatu erabaki ahalko da domekan. Alderdi bat edo bestea aukeratu, zeintzuk ildo jorratuko

Domekakoa hauteskunde mota horien hamaikagarren aldia izango da

diren, zeintzuk egitasmo lehene-tsiko diren... Herritarrengandik gertuen dauden lanketa politikoak dira, eta, horregatik, hauteskunde-rik garrantzitsuenak izan daitezke.

Hala ere, herrialdeko lerro orokorrak zehaztuko dira Batzar Nagusietan, eta eragin zuzena dute eskualdeetan ere.

Europar, eskuma gorantz

Europar Batasunaren krisi bete-betean heldu dira parlamenturako hauteskundeak. Batzuek batasunaren defentsa egiten duten bitartean, eszeptikoak ugaritu egin dira azkenaldian. Batetik, Britainia Handiko Brexita erdibidean da. Bestetik, alderdi ultraeskuindarren gorakadak zalantzan jarri ditzake komunitateetako zenbait politika.

Eskualdeko 13 udaletan agintea hartzea egongo da jokoan

2015ean EAJ izan zen alderdirik bozkatuena, eta EH Bilduk lortu zuen alkatetzarik gehien

DURANGALDEA •

Eskualdean 13 udaletan agintea hartzea egongo da jokoan domekan. Horrez gainera, zein alderdi nagusituko den eta bakoitzak zenbat alkatetza lortuko dituen ere intereseko gaiak izango dira.

2015eko udal hauteskundeetan, Durangaldean EAJ izan zen garaile, EH Bilduri 1.000 botoko

aldea aterata. Boto kopuruan galdu arren, alkatetzetan irabazle izan zen koalizio subiranista. Sei herritan izan zen bozkatuena EH Bildu: Atxondon, Elorrión, Izurtzan, Mañarian, Otxandion eta Zaldibarren. EAJk bost udaletan eskuratu zuen lehen postua: Berrizen,


Durangon, Iurretan, Mallabian eta Zornotzan.

Abadiñon independenteek irabazi zuten, eta Garain, Herriko Taldeak.

EAJk 59 zinegotzi batu zituen, EH Bilduk 61, PSE-EEK 7, Herriaren Eskubideak 6, eta PPk bakarra.

Udal hauteskundeak 2015 – Durangaldea

Boto kopurua



Orain lau urte EAJk lortu zuen botorik gehien Durangaldean



Aitor Lopez presidentea eta Oskar Zarrabeitia presidente ohia, 2015ean.

Amankomunazgoa zelan osatu erabakiko da

2015ean aldaketa historikoa gertatu zen, EAJk urteetako agintea galdu eta EH Bilduri paso emanda

DURANGALDEA •

Udal hauteskundeetan bitartez erabakitzeko da Amankomunazgoaren osaketa ere. Gizarte larrialdiak, enplegua, kirol instalazioak eta hondakinak gestionatzen dira bertatik, besteak beste.


Orain lau urte aldaketa historikoa gertatu zen, EAJk hamar-

kadetako agintea galdu eta EH Bilduri paso emanda. EH Bilduk 13 jarleku eduki zituen, EAJk 11, Abadiñoko Independienteek 2 eta Herriaren Eskubideak 1. Azken hauek eman zitoten gobernurako beharrezko babesak EH Bilduri. Aldaketa hori egonkortu edo irauliko den, domekan ikusgai.

Durango, lehiaren interesgune handietakoa

DURANGO • Eskualdeburu delarik, Durango izango da etziko hauteskundeetan interesgune handietariko bat, baita Euskal Herri osoan ere. Udalaren azken ikerketa soziologikoak orain lau urtekoaren antzeko emaitzak iragarri ditu, zinegotzi kopuruan aldaketarik eman barik. Hala ere, aurpegi berri asko egongo dira hautagaien artean, eta VOX alderdi ultraeskuindarra ere sartuko da lehian. Boto

kopuruan barik, zinegotzi banaketan egon daiteke aldaketa posible baterako giltza. Jarleku baten bueltan egon daiteke. Gako nagusietako bat Herriaren Eskubidearen emaitzetan egongo da. 2015ean alderdi berria zen, eta, orduan, abstentziotik eta beste alderdietatik jasotako botoak mantenduko dituen jakiteke dago. Bestalde, alkategaia errepikatuko duen bakarra da, eta lau urteko esperientzia du bere alde.



Orain lau urte Durangon izandako zinegotzi banaketa.

Herri batzuetan boto gutxiren aldeak erabaki ditzake alkatetzak

Mallabian 3 botogatik irabazi zuen alkatetza EAJk, eta Mañarian bigatik mantendu zuen EH Bilduk

DURANGALDEA • Mallabian eta Mañarian, boto gutxi batzuek erabaki zituzten udal hauteskundeetako emaitzak orain lau urte, eta aurten ere lehiarik estuenetakoa herri bi horietan egon daiteke. Mañarian, boto biren aldeagaz irabazi eta mantendu egin zuen alkatetza EH Bilduk. Ma-

llabian, oster, hiru botoren aldeagatik EH Bilduk galdu egin zuen alkatetza. Bestalde, Abadiñon eta Garain 12 urtean alkate izan diren Navarro eta Sarrigoitia independenteek ez dute segituko, eta horrek emaitzetan eraginik izan ahal duen jakitea etziko interesguneetako bat izango da.



Mallabian eta Mañarian 2015ean EAJk eta EH Bilduk izandako emaitzak.

Emaitzen zuzeneko kontaketa, ANBOToren webgunean ikusgai

Domekan hautes mahaiak zarratzen direnean, 20:00etan, eskualdeko emaitzen jarraipena hasiko dute 'www.anboto.org' atariko kazetariak



Webguneko hauteskunde tresnaren irudia, ANBOToko erredakzioan.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Maila politikoan, eskualdearen zat egun garrantzitsua izango da etziko, eta horren arabera jarraipena egingo du ANBOToko erredakzioak. 20:00etan, hautes mahaiak zarratzean, herrietako emaitzak zuzenean jasotzen hasiko dira kazetariak, herritarrek informazioa azkar eduki ahal izateko. Horren aurretik, egunean zehar partaide-tza datuen inguruan ere informatuko dute tokiko euskarazko komunikabidean.

Tresna berri bat

Domekako emaitza guztiak hauteskundeetako eskaintako atal berezi batean sartuko dira. Irakurleentzako tresna berezi

bat da, dagoeneko webgunean ikusgai dagoena. Bertan, 1979. urtetik hona eskualdean izandako hauteskunde guztien informazioa batuta dago; taula,

Emaitza guztiak hauteskundeetako eskaintako atal berezi batean sartuko dira

Informazioa batuta dago; taula, grafiko eta irudi bitartez ikusteko aukera ematen da

grafiko eta irudi bitartez ikusteko aukera ematen da. Gainera, hauteskundearen artean alderaketa egitea ere posible da; horrela, aurtengo udal hauteskundeetako emaitzak orain lau urtekoekin konparatu ahal dira, esate baterako.

Eskura dagoen atal edo tresna berri hori Hauteskundeetako datu historikoak izenagaz ageri da www.anboto.org atarian. Bertan klik egin eta hainbat aukera sortzen dira, emaitzak hauteskunde motaren arabera ikusteko, alderdika zein herrika. Alderdi politikoek urte hauetan guztietan edukitako eboluzioa ere ikusi daiteke, grafikoaren bitartez.

Tresna erabiltzeko pausoak:

1

 HAUTESKUNDEETAKO DATU HISTORIKOAK

www.anboto.org atarian sartu, eta klik egin Hauteskundeetako datu historikoak atalean.

2



Aukeratu hauteskunde mota bat, baita herria ere.

3



Egin konparaketak alderdien zein hauteskundearen arabera.

Otegi: "Burujabetza ezinbestekoa da, hemen zelako politikak gura ditugun erabakitzeke"

Jendetza batu zen eguaztenean Durangon, EH Bilduk Ezkurdin egin zuen ekitaldi nazionala jarraitzeko

EH BILDU • ARITZ MALDONADO

EH Bilduk indar erakustaldia egin zuen kanpainaren azken txanpan. Eguaztenean ekitaldi jendetsua egin zuten, eta Arnaldo Otegi koalizio subiranistako idazkari nagusiak, Francisco Garcia BNGko kideak, Bea Ilardia Bizkaiko ahal-dungaiak eta Ima Garrastatxuk

berba egin zuten. Durangaldeko EH Bilduko alkategairik gehienak ere egon ziren. Otegi "bestelako politikagintza" baten garaia dela azpimarratu zuen, eta burujabetza eta parte-hartzea jarri zituen diskurtsoaren erdigunean. Akordioetara heltzeak duen garrantziaz ere berba egin zuen, eta koalizio sub-

iranistak ekainean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoarako "Estatus politiko berri baterako" proposamena aurkeztuko duela aurreratu zuen.

Aldaketaren eredua

Francisco Garcia BNGko kide eta Allarizeko (Galizia) alkate ohia ekitaldian zela, herri bien artean konparazioa egiteko aukera baliatu zuen Garrastatxuk. Galizian herritarren mobilizazioek alkatea dimisioa ematera bultzatu zutela azaldu zuen, eta Durangon ere berdina egiteko deia egin zuen: "EAJk eta PSEk osatzen duten udal gobernuaren kudeaketa penagarria izan da, eta ostrukarena egin dute herritarrek zerbait galdetu duten bakoitzean". Ekitaldi amaieran, ateak zabaltzeko "aldaketaren alde" dauden alderdiekin egon daitezkeen akordioei.



Otegi, Ezkurdiko ekitaldian.

"Proiektu sendo bategaz", EH Bildu prest dago Zornotzan agintzeko

Herrian Emakumeen Etxe bat zabaltzea da koalizio subiranistaren programako proiektuetariko bat



Joan zen zapatuan egin zuten agerraldia, Zelaietako frontoian.

EH BILDU • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Zornotzako EH Bilduk joan zen zapatuan egin zuen kanpainako ekitaldi nagusia, Zelaietako frontoian. Bertan, Ander Uriarte EH Bilduko alkategaiak, neurri zehatzak biltzen dituen "proiektu sendo" bategaz Zornotzan gobernatzeko prest daudela aldarrikatu zuen. "Taldea bikaina osatu dugu eta Zornotzan gobernatzeko prest gaude", esan zuen.

Ekitaldian, EH Bilduko kideek programaren ildo nagusiak azaldu zituzten. Besteak beste, berdintasun politikak lantzetik politika

feministak lantzeraz igarotzea eta Emakumeen Etxea zabaltzea dira euren asmoetariko batzuk.

Zaldibarko EH Bilduk parte-hartzea ipini du koalizioaren kudeaketa ereduaren oinarrian

Egun berean, Zaldibarko EH Bilduk ere egin zuen ekitaldia, eta Eneritz Azpitartek parte-hartzea ipini zuen koalizio subiranistaren kudeaketa ereduaren oinarrian.

Herriaren Eskubideak 24 orduko pediatria zerbitzua du lehentasunen artean

"Gure seme-alabak ez dira bigarren mailako herritarrik", azaldu du Julian Rios Durangoko koalizioaren alkategaiak



Julian Rios alkategaia joan zen astean Andra Marian egindako ekitaldian.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Herriaren Eskubideak, Elkarrekin Podemosegaz eta independenteekin koalizioan aurkeztuko den alderdiak, ekitaldia egin zuen joan zen barikuan, Durangoko Andra Marian. Udaleraiko hautagaiak ez ezik, Lander Martinez Podemos Euskadiko idazkari nagusiak ere parte hartu zuen, besteak beste.

Durangoko osasun zerbitzua areagotzeko ahaleginak "lehentasuna" izaten jarraituko duela adierazi zuen Julian Rios Durangoko Udaleraiko alkategaia. 24 orduko pediatria zerbitzua "beharrezko" ikusten dute. "Gure seme-alabak ez dira bigarren mailako herritarrik", adierazi zuen.

Herriaren Eskubidearen beste eskakizunetariko bat herrirako anbulantzia zerbitzu berriak izango dira. Riosen "ezinbestekotzat" jo zuen ZIU-Mugikorr medikalizatu izatea, Gernikako Ospitalean dagoenaren "menpe" ez egoteko. Horregaz batera, bihotz-bizkortze zerbitzu baten beharrezko plaza-ratu zuen koalizioaren alkategaia.

Auzoetan gehiago inbertitu gura du Elkarrekin Podemosek

Zornotzako koalizioak ekitaldia egin du Zelaieta Parkean

ZORNOTZA • J.D.

Auzoetan "gehiago" eta erdigunean "gutxiago" inbertitzearen aldekoa da Alba Gutierrez Zornotzako Elkarrekin Podemos koalizioaren alkategaia. "Auzoetan bizitza egin gura dugu, ez bizi bakarrik", adierazi zuen eguaztenean koalizioak Zelaieta Parkean egindako ekitaldian. Tarrantan egingo duten su-

permerkatuari "behin eta berriro" ezetz esan diotela gogoratu zuen: "Min handia egingo dio herriko komertzioari". Anbulatorio zaharra bota beharrean, zegoena berriztu zitekeela uste du, musika eskola hartzeko. "Obra faraonikoetan milioiak gastatu barik, beharrezko azterketak egin behar dira", gaineratu zuen.



Udaleraiko zein Batzar Nagusietarako hainbat hautagai batu ziren Zornotzan.

Elorriion kiroldegi berri bat sortzea proposatu du EAJk

Fytasako lurretan egingo lukete instalazioa, eta egungo kiroldegiaren lekuan gazteei begirako etxeak eraikiko lituzkete

EAJ • M.O.

Elorrioko EAJk dio erabilerak eta praktika berrien eskariak gora egin dutela kiroldegian, eta "zaharkituta" geratu dela. Ondorioz, kirolgune berri bat eraikitzea proposatu du, eta lekua ere pentsatu du: Fytasa fundizio zaharreko lurak. Hartara, "kutsatuta egon daitekeen" lur bat berreskuratu litzatekeela uste du EAJk. Gainera, egungo kiroldegiak libre utziko lukeen eremuan etxeak egiteko ideia plazaratu dute jeltzaleek, "gazteengan arreta berezia jarrita".

Orain lau urte ere proposamen bera kaleratu zuten jeltzaleek. "Hori egia bihurtzeko unea heldu da, Elorrio aktibo bat sustatu gura badugu behintzat. Elorriarrek

kirola egiten jarraitu dezaten gura badugu, horretarako leku egoki bat eskaini behar diegu", azaldu du Joseba Muxika alkategaiak. Gainera, futbol eta errugbi zelaie-

"Elorriarrek kirola egiten jarraitu dezaten gura badugu, leku egoki bat eskaini behar diegu"

tan hainbat hobekuntza egiteko asmoa duela ere adierazi du EAJk.

Bestalde, San Agustingo bidegorriaren zati bat berritzea, eta Montorra parkean ume, gazte eta nagusientzako gune bat egitea proposatu du, besteak beste.

EAJren ereduaren alde pedalei eragitera dei egin du Ortuzarrek

"Bizitzeko eta gozatzeko" Durango baten alde agertu da Mireia Elkoroiribe alkategaia



Ekitaldira Iñigo Urkullu lehendakaria bertaratu zen, eta Izaskun Bilbao Europarako hautagaiak ere parte hartu zuen.

EAJ • MARKEL ONAINDIA

Joan zen barikuan Aberri Ekitaldia egin zuen EAJk Durangon, besteak beste Andoni Ortuzar alderdiko presidentearen partaideztagaz. EAJren eredu "positiboa, eraikitzailea, talde lanekoa eta elkarrizketarena" dela esan zuen Ortuzarrek.

"Beste alderdiak EAJren aurka egotea seinale ona" dela uste du jeltzaleen presidentek, "garaitu beharreko arerioa" dela erakusten duelako. "28an mendiko sailkapena irabazi genuen, baina 26an orokorra dugu irabazteko. Denok batera eragin behar diegu pedalei",

esan zuen. Mireia Elkoroiribe alkategaia "bizitzeko eta gozatzeko Durango" baten alde agertu zen, eta hauteskunde programako proposamen nagusiak aurkeztu zituen. "Bizikleta ardatz" izango duen herria diseinatu gura du, kaleak oinezkoentzat berreskuratuko dituen. Bestalde, estazioko lurak ere berbagai hartu zituen,

Ortuzar: "28an mendiko sailkapena irabazi genuen, baina 26an orokorra dugu irabazteko"

eta lehendakariari elkarlana proposatu zion. "Herriararren adostasunetik abiatuta, gune hori berriro ere Durangori emango diogu", esan zuen alkategaiak.

Euskara, kirolek

Bestalde, kirol taldeak inplikatur euskararen erabilera handitu gura du Durangoko EAJk. "Horrela, gazteek aisialdiko esperientzia positiboak euskaragaz lotuko dituzte".

Horrez gainera, Elkoroiribek azaldu du "gobernu irekia" osatuko duela. Eta lehen sei hiletan Gobernu Plana landu, eta herriarrei zuzenean aurkeztuko diela.



EAJk ekitaldia egin zuen domekan. Ana Otadui batzar nagusietarako hautagaia egon zen.

LH eta HE eraikin berrian batu gura dituzte Abadiñoko Independentieek

AI • A.M.

Hauteskundeetara begira, Abadiñoko Independentieek proiektu bat proposatu dute Traña-Matienako erdigunerako. Proiektuaren arabera, Haur Hezkuntzako eraikina Traña plazara lekualdatuko litzateke, eta Lehen Hezkuntza ere eskainiko litzateke bertan. Talde politikoak hainbat hile daramatza proiektu honetan lanean, eta helburua, auzoko erdigunean "gozatzeko" toki bat egotea litzateke. "Urbanistikoki, plaza atseginagoa izango da bizilagunentzat", azaldu zuen Javier Crespo Abadiñoko Independentieen alkategaiak ohar bitartez. Bestalde, osasun etxe berri bat proiektatu dute Zelaietarako, Txanporta kultur etxearen atzealdean legokeena.

PSE-EE, Durangoko industrializazioaren alde

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Ekitate soziala oinarri hartuta, "kalitatezko enplegua" sortuko duen 4.0 industriaren aldeko apustua egingo du PSE-EEK, "industria teknologiko eta jasangarrien alde lan eginez" Durango berriro ere eskualdeko erreferente bihurtzeko. Hala azaldu du Jessica Ruiz alkategaiak. Eider Gardiazabal eurodiputatua izan da beragaz.

Bereziki, luzaroko langabeak eta 45 urtetik gora dituztenak gogoratu ditu Ruizek, eta euren

proiektua aurrera ateratzeko baliabiderik ez duten gazte ekintzailak. Horren aurrean, enpresa azeleragailu bat sortzea proposatu du.

San Agustingo ospitalea

Bestalde, San Agustingo ospitalea berritzea proposatu dute, nagusientzako egoitza eta tutoretzapeko pisuak jartzeko; Astarloa eguneko zentroa ere eroango lukete bertara. Zahartze aktibo, solidario, jasangarri eta osasuntsua sustatuko dute sozialistek.



Jessica Ruizegatz batera, Eider Gardiazabal eurodiputatua.

PP, durangarren egunerokoa hobetzeko proposamenekin

Eguiluz: "Gureak ez dira makroproiektuak, jendearen ongizatea hobetzeko proposamen praktikoak baino"



PPk Ezkurdin egin zuen ekitaldia.

PP • ARITZ MALDONADO

"Nekatuta, baina hasieran bezain gogotsu" dago Aiala Eguiluz PPko zerrendaburua alderdikideekin batera Durangon egin duen kanpainagaz. Bere berbetan, herritarrek ondo hartu dituzte bere alderdiak egindako proposamenak, eta udalean duten zinegotziari eutsiko diotelakoan dago. "Gureak

ez dira makroproiektuak, durangarren ongizatea hobetuko dituen proposamenak baino", azaldu zuen Eguiluzek egunean egindako ekitaldian. Aparkalekurik eza konpontzea lehenetsi du, eta, horrez gainera, trenbideko lurretarako planean aldaketak egitea proposatu du, "dorreak txikituz, eta berdeguneak gehituz".

Txakurak solte ibiltzeko beste gune bat zabaldu dute, asteen, Elorrion

San Agustingo, Goietako eta Nizeto Urkizu kaleko aparkalekuaren osteko guneez ez dute ordutegi mugarik izango; beraz, 24 orduan egongo dira erabilgarri hiru guneez



Kulunka bat, sigi-saga egiteko zutoinak eta hodi bat daude Goietan.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udala zenbait gune prestatzen dabil txakurak solte ibili daitezzen eta herrian jolasteko lekua eduki dezaten. Aste honetan jakitera eman dutenez, Goieta auzoan txakurgune bat zabaldu dute txakurak aske ibiltzeko. Gainera, gune berri horretan hainbat elementu jarri dituzte: kulunka bat, sigi-saga egiteko zutoinak eta hodi bat. "Azken urte hauetan kekax jaso izan ditugu lantzean behin, txakurak aske ibiltzen direlako herrian. Orduan, elorriarren bizi-kidetzari begira, txakurak aske ibiltzeko guneez egokitzea erabaki genuen, orain urte batzuk onartutako araudian agertzen zirenak, hain zuzen", adierazi du Idoia Buruaga alkateak.

Hala ere, Goieta auzoko gune berri hau ez da Elorrion txakurak solte ibiltzeko daukaten toki bakarra. Orain hilabete batzuk,

udalak beste gune bat zabaldu zuen, San Agustin auzoan.

Horrez gainera, epe laburrean, Nizeto Urkizuko aparkalekuaren atzealdean beste gune bat atonduko dute. Buruagak jakitera

Orain arte jaso dituzten balorazio guztiak onak izan direla jakitera eman du Idoia Buruagak

Eguaztenetan, San Agustingo gunean salbamendu txakurrek dute lehentasuna

eman duenez, hirugarren gune hau ekain ingururako egongo dela prest aurreikusten dute.

Behin hiru guneez atonduta, Buzkantza lursailean beste gune bat egiteko asmoa ere badu udalak. "Orain arte jaso ditugun balorazio guztiak onak izan dira, eta hori positiboa da", aitortu du Buruagak.

Ordutegirik ez

Bestalde, beste herri batzuetan ez bezala, txakurrentzako Elorrioko guneez ez dute ordutegirik; beraz, 24 orduan egongo dira erabilgarri. Hala ere, Elorrioko alkateak jakinarazi du eguaztenetan salbamendu txakurrek dutela lehentasuna San Agustingo gunean. "Salbamendurako txakurren elkar-tekoek esan ziguten txakurak entrenatzeko leku itxi baten beharra ikusten zutela, eta, orduan, eguaztenetan eurek izatea lehentasuna erabaki zen", esan du Idoia Buruaga alkateak.

Batxillergoko lehen urtea Kanadan, beka bati esker

Durungaldean beka jaso duen bakarra da Arginzoniz



Goizeder Arginzoniz elorriarrak 15 urte ditu.

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Goizeder Arginzoniz Gonzalez 15 urteko elorriarrak Petrolian (Kanada) egingo du batxillergoko lehenengo urtea. Elorrioko ikasleak estatuan ematen dituzten 500 beketako bat irabazi du, eta, horri esker, hurrengo ikasturtea atzerrian egiteko aukera izango

du. Arginzoniz da eskualdean beka hori jaso duen ikasle bakarra.

"Betidanik gura izan dut Kanadara edo Estatu Batuetara ikastera joan; beraz, ametsa betetzea lortu dudala esan dezaket", aitortu du gazte elorriarrak. Bestalde, dagoeneko joateko irrikan dagoela esan du.

Elorrion zabalik dago kanpoko igerilekuetan abonatu egiteko kanpaina

Udalak hainbat beherapen ezarri ditu bonuen prezioetan

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eguraldi onagaz batera, kanpoko igerilekuak prestatzen hasteko ordua heltzen da. Elorrion, dagoeneko hasi dira lanean, eta "zerbitzua hobetzeko asmoz", bonuen prezioetan hain-

bat beherapen ezarri dituela jakitera eman du udalak. Informazio gehiago gura duenak zein abonatu egin gura duenak kiroldegiko bulegoan edo 946 821 027 telefonora deituta egin dezake hori.



Elorrion hasi dira kanpoko igerilekuak prestatzen.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2019ko maiatzaren 24a
17. urtea - 764. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Markel Onaindia Txabarri.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Gorette Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Markel Onaindia Txabarri, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala eta Karolina Suarez Borges.
Maketazioa: Bea Sierrasesumaga Guezuraga eta Nerea Azpiazu Beaskoetxea.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Guardia Zibilak Gorka Lupiañez torturatu egin zuela ebatzi du Nazio Batuen Erakundeak, preso durangarrak salaketa ipini eta 12 urtera

NBEko Giza Eskubideen Batzordearen ustez, Lupiañezek "deskripzio zehatza eta koherentea" egin zuen, eta fidagarritzat jo ditu mediku txostenak



Lupiañezi apirillean ipinitako zigorra salatzeko, mobilizazioa egin zuten hainbat lagunek Elorriren. ETA desaginda, zigorrak "zentsurik ez" duela esan zuten, eta euren ustez sententzia "epaiketaren aurretik idatzita" zegoela.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

2007ko abenduan atxilotu zuen Guardia Zibilak Gorka Lupiañez durangarra, ETAko kide izatea egotzita. Zortzi egun pasatu zituen inkomunikatuta, horietatik bost komisarian eta hiru kartzelan. Etxera deitu ahal izan zuten, torturatu egin zutela kontatu zuen. Besteak beste, buruan hainbat bider ipini ziotela poltsa eta ezin zuela arnasarik hartu jasotzen da bere salaketan. Baita burua ur hotzetan sartu ziotela ere, barrabiletan kolpatu zutela, zakilera soka bat lotu eta tira egin ziotela, ipurditik makila bat sartu ziotela... Testigantza gordina eta beldurgarria da Lupiañezek egingakoa. Lehenik, bere familiak

munikazio aldiak amaitzea ere eskatu dio.

NBErentzat fidagarria da

Giza Eskubideen Batzordeak adierazi du Lupiañezek "deskripzio zehatza eta koherentea" egiten duela inkomunikazioan gertatutakoaz, eta fidagarritzat jo ditu mediku txostenak. Presoaren bertsioagaz bat egiten dutela uste du. Markak zituela, urduri zegoela, zakilean hematoma bat zeukela, ezpainetan ultzerak zituela eta afonia zuela jasotzen dute txostenek. Estatuak ebidentzia horien esplikaziorik ez ematea ere kontuan hartu du NBEk. Lupiañezek azaldu zuen errepresioaren

beldurratik ez zuela torturen berri eman komisarian, eta batzordeak sinisgarritasuna eman dio.



Gorka Lupiañez

"Bide luzea egin behar izan dugu NBEk ebazpen hau argitaratu ahal izateko"

ipini zuen salaketa epaitegian, eta gero bere abokatuek ere bai. Aitortza ailegatu ahal izateko, 12 urte iraun duen prozesu bat hasi zen orduan, ukazioz eta errekurtsioz beterikoa. Estatuak auzitegietatik eta Estrasburgoko Giza Eskubideen auzitegitik pasatu eta gero, Nazio Batuen Erakundera jo zuen, eta hango Giza Eskubideen Batzordeak ebatzi du baietz, torturatu egin zutela eta bere giza eskubideak urratu zirela.

Gainera, NBEren batzordeak adierazi du Lupiañezek ez zuela eduki "torturak ikertzeko errekurtsio efektibo baterako aukerarik", eta hori ematea exijitu dio Estatuari. Lupiañezi "justizia eta erreparazioa" eman, eta inko-

"Garaipen txiki bat"

Lupiañezek mezua helarazi du Topaseko (Salamanca, Espainia) kartzelatik. Ebazpena torturatu guztien "garaipen txiki bat" dela uste du, eta eskerrak eman ditu. "Bide luzea egin behar izan dugu NBEak ebazpen hau argitaratu ahal izateko. Eta bide luze honetan ez naiz sekula ere bakarrik sentitu. Zuei esker egin ahal izan dut aurrera unerik zailenetan ere. Alboan izan zaituztet familia, lagunak, abokatuak...", esan du presoak.

Hamabi urteko kartzela zigorra beteko du aurrean, baina apirillean 50 urteko beste bat ezarri dio Auzientzia Nazionalak. Bere ingurukoek salatu egin dute zigorra.

CENTRO INTEGRADO DE FORMACIÓN PROFESIONAL

ZORNOTZA

LANBIDE HEZIKETAKO IKASTETXE INTEGRATUA

DATAK

Aurrematrikula
ekainaren 3tik 14ra

Matrikula
uztailaren 11tik 17ra

ESKAINZA OSOA

GOI-MAILAKO ZIKLOAK

- Metal-Eraikuntzak
- Web Aplikazioen Garapena
- Mekatronika Industrial

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

- Merkataritza Jarduerak
- Erizaintzako Zaintza Osagarriak
- Mantentze-lan Elektromekanikoa
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mikroinformatika-sistemak eta Sareak

ESKAINZA PARTZIALA

- Erizaintzako Zaintza Osagarriak

ENPLEGURAKO PRESTAKUNTZA

- Langile/langabetuentzat ikastaroak

946 730 251 | info@fpzornotza.com | www.fpzornotza.com | @fpzornotza

Iñigo Kortabitarte: "Gero eta zailagoa da pintxo txapelketak irabaztea"



Kortabitarte, eskumatik lehena, Bilbon jokaturako finalean.

DURANGO • MARKEL ONAINDIA

Bizkaiko pintxo txapelketaren aurreko edizio bietan lehen saria irabazi ostean, aurtengoan bigarrena jaso eta gailurrean jarraitzen du Kortabitarte anaiei Kobika jatetxeak. "Pozarren gaude, gero eta zailagoa da eta txapelketak irabaztea. Gero eta gazte jende gehiago dago eta tabernetan pintxo hobeak egiten dituzte. Aurten oso maila ona egon da", esan du Iñigo Kortabitartek.

Etenbako eraberritzean dagoen sukaldia da Kobikakoa. Horregatik, besteen produktu eta teknikak

Aurtengoan bigarren saria jaso eta gailurrean jarraitzen du Kobika jatetxeak

ezagutzeko ere aukera bat izan ohi dira txapelketak eurentzat, sukaldariak dioenez.

Choux ibérico izeneko pintxoak aurkeztu dute txapelketan. Itxurak ziria sartzen duen horietakoa da: pasteltxo bat dirudi bistara, baina sekretu iberikoa hirugiharraz eta sagar gailetagaz osatutako pintxo da. Lehen saria Ermuko Mojito Club Kiska tabernako Andoni Perezek jaso du, Taconazo pintxoagatik.

Durango neska gazte batek salaketa ipini zuen domekan, sexu erasoagatik

DURANGO • M.O.

Durango neska gazte batek salaketa ipini zuen domekan, sexu erasoagatik. Udalak martitzenean zabaldu zuen gertaera; Berdintasun Kontseilu eta Batzordeek eraso gaitzetsi dute,

Berdintasun Kontseilu eta Batzordeek eraso gaitzetsi dute, eta babesa erakutsi diote neskari

eta babesa erakutsi diote emakumeari. Bere esku ipini dituzte udalaren baliabide juridiko, asistentzial eta psikologikoak. Oraingoz ez dago biktimaren egoerari buruzko beste informaziorik.

Elkarretaratzea

Bestalde, atzorako Andereak elkarteak deitutako elkarretaratzeraz joateko deialdia ere zabaldu zuten kontseiluak eta batzordeak. 20:00etan izan zen bilkura, Andra Marian.

13.000 euro bideratu dituzte hezkuntza gastuei aurre egiteko diru-laguntzetara

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Eskolatuta dauden seme-alaben edo inoren kargura dauden adingabeen eskolatzeagatik sortutako gastuetarako diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu dute. 2018/2019 ikasturteko diru-laguntza hauetarako, 13.000 euro bideratu ditu udalak, eta ekainaren 10era arte aurkeztu daiteke eskabidea, Herritarren Arretarako Zerbitzuan (HAZ).

Honako tarteak zehaztu dira: haurreskola (100 euro), Haur

Ekainaren 10era arte aurkeztu daiteke eskabidea, Herritarren Arretarako Zerbitzuan

Hezkuntza (20 euro), LHko 1. mailatik 4. mailara bitartean (30 euro), LHko 5. eta 6. mailak (45 euro) eta DBHko 1. mailatik 4. mailara bitartean (75 euro). Informazio gehiagorako kultur etxera joan daiteke edo 946200342 telefono zenbakira deitu daiteke.

XXVII Uraren Jaia 2019

ARRIGORRIAGA

Agirre Lehendakariaren parkea
Joan XXIII.aren plaza
Udaletxeko plaza

PUZGARRIAK

UR JOLASAK

IKUSKIZUNAK

TAILERRAK

ETA ASKOZ GEHIAGO

EKAINAK

1

17:00etatik aurrera

2

10:30 - 15:00

arrigorriaga
UDALA - AYUNTAMIENTO

Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia

Mexiko Hiria, kutsaduraren ondorioak ohiko bizitzan

Maialen Arteaga zornotzarrak hango egoera kontatu du

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Durungaldean airearen kalitatea gero eta solasaldi gehiagotako ber-bagaia den sasoian, Mexikotik muturreko egoera baten kontakizuna egin du Maialen Arteaga 21 urteko gazte zornotzarrak sare sozialetan. Mexikoko hiriburuan kazetaritza ikasten dabil eta etxetik irten barik egon zen joan zen asteko hainbat egunetan. Aspalditik kutsatuta dagoen aireari azkenaldian gertatu diren suteetako kea batu zitzaioa

eta “behelaino konstante bat” sortu zela adierazi du. Agintariek alerta egoerara deitu zuten eta eskolak bertan behera utzi zituzten. “Eztula, eztarria urratuta, begiak gorri eta buruko mina” dira aire hura arnastearen ondorio batzuk.

Keagaz edo kerik barik, hango airea beti kutsatuta dagoela esan du Arteagak: “Batzuetan gehiago ikusten da eta geruza bat sortzen da”.



Zornotzako M8 Plataformako kideak udaletxeko atarian egindako agerraldian.

Urte osoan lanean jarraituko duela iragarri du Zornotzako M8 Plataformak

“Borroka feminista ez da egutegiko egun batera mugatzen”, adierazi dute

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Zornotzako M8 Plataformakoek urte osoan lanean jarraituko dute. Martxoaren 8ko mobilizazioetan izandako arrakastak animatuta, ez direla egun bakar bati begirako lanera mugatuko adierazi zuten joan zen asteburuan egindako agerraldian. “Martxoak 8 Plataformak

lanean jarraituko du. Borroka feminista ez da egutegiko egun batera mugatzen. Etengabeko borroka bat da”, adierazi zuten.

Agerraldian, Emakumeen Etxe baten beharrezana plazaratu zuten. “Emakumeen artean adostutako zerbitzuak eskaini eta ahalduzko aukera emango digun espazio

bat behar dugu”, adierazi zuten Plataformako kideek.

Plataformara batzeko deia

Herritarrei begirako mezua ere bidali zuten. Martxoaren 8an kolektibo denetara heldzerik ez zutela lortu onartuta, Plataformara batzeko deia egin zieten herritarrei.



Arteaga uztailan joan zen Mexikora, eta urtebete emango du han, kazetaritza ikasten.

IURRETA BAT EGINIK

EAJ-PNV.EUS

EMAN BOTOA

Maiatzaren 28an amaituko da Zaldibarko jaietako kartel lehiaketa

ZALDIBAR • A.M.

Aurten ere, lehiaketa bidez aukeratuko dute Zaldibarko San Andres jaietako kartel iragarlea. 250 euroko saria irabaziko du kartel hautatuaren egileak. Bigarren saria 150 eurokoa izango da. Iazko moduan, sari berezia egongo da haurren kategorian. Proposamena aurkezteko azken eguna maiatzaren 28a izango da. Iaz, zortzi proposamen jaso zituzten Kultura Sailean. Kartelak euskarri fisikoan zein digitalean eraman daitezke udaletxera bertara. Formatu digitalean kultura@zaldibar.eus helbidera bidali behar dira. Gaia egilearen beraren aukerakoa izango da eta testu hau egon behar da idatzita: 2019ko Zaldibarko Jaiak.

Egoitz Fullaondoren 'Berriz Munduan' lanak iragarriko ditu 2019ko jaiak

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Algortako Egoitz Fullaondoren Berriz Munduan lanak iragarriko ditu aurtengo San Pedro eta Santa Isabel jaiak. Beste behin

Herriko kartelik onenaren saria Karlos Berrizbeitiari eman diote, 'Tatatxan!' lanari, hain zuzen ere

ere, artista algortarraren lan bat izango da jaietako kartel iragarlea; iaz ere berak irabazi zuen.

Herriko saria Karlos Berrizbeitiari eman diote, *Tatatxan!* lanari, hain zuzen ere.

Metalgintza arloan, Durangaldeko enpresen %90ek egin dute greba hitzarmena hobetzeko

Sektoreko hitzarmena hobetzearen alde dabilta borrokan, ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK eta CGT sindikatuak deituta



Eguaztenean mobilizazioa egin zuten Durangon.

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

ELA, CCOO, LAB, UGT, ESK eta CGT sindikatuak Bizkaiko metalgintza arloan deitutako grebaren lehen eguna izan zen atzokoa, eta Durangaldean 50 enpresatik gora izan ziren geldialdiaren eraginez zarratu zutenak, sektoreko enpresen %90, sindikatuaren datuen arabera. San Eloy, Ona, Gestamp Bizkaia, Inyektametal eta Garbi galdategia

batu ziren grebara, beste hainbat enpresaren artean.

Bezperan Durangon eginiko mobilizazio batez hasi ziren greba berotzen, eta, atzo, goizean

Bezperan Durangon eginiko mobilizazio batez hasi ziren greba berotzen

goizetik elkartu ziren sindikatu guztietako kideak, informazio-piketeak osatzeko.

15 hilean negoziatzen

Hitzarmena hobetzearen alde dabilta borrokan. 15 hilean ibili dira patronalagaz negoziazioetan, baina ez dela aurrerapausorik egon esan dute sindikatuak. "Metalgintzan grebara joatea beste biderik

ez digu utzi patronalak", esan zuen LABek grebaren aurretik. "Patronala eroso eta harrotuta dago, eta prest dago enplegua suntsitzeko eta sektoreko lan baldintzak prekarizatzeko, bere estrategiaz jarraitzeko", LABen esanetan.

Beharginek protestagaz jarraituko dutela adierazi dute. Ekainaren 6, 7, 20 eta 21erako deitu dituzte hurrengo greba egunetara.

Arginzonizen Etxebarri jatetxea Europako hiru jatetxerik onenen artean

Eneko Atxa zornotzarraren Azurmendi jatetxea 17. postuan dago, Opinionated About Dining gidaren arabera

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Opinionated About Dining (OAD) gidak 2019ko Europako 100 jatetxerik onenen zerrenda argitaratu du eta Bittor Arginzonizen Etxebarri

hirugarren postuan ageri da. Axpen dagoen Etxebarri jatetxeak, beraz, iazko postuari eutsi dio.

Bestalde, Eneko Atxaren Azurmendi jatetxeak 17. postua lortu du.



Bittor Arginzoniz Etxebarri jatetxeko arduraduna.

amorebieta etxano
VIII. PINTXO TXAPELKETA

MAIATZA 30 18:00 - 21:00
EKAINA 1 18:00 - 21:00

MAIATZA 31 12:00 - 15:00
EKAINA 2 12:00 - 15:00

Anima zaitetz eta parte hartu! Sariak egongo dira!

2019

Sukalderik bako eskoletan pausorik ez dela eman ohartarazi dute

Berton Bertokoako kideek egoeraren balantzea egin dute bideo baten aurkezpenean

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Berton Bertokoak *Sukalde bat jantokian* abestiaren flashmoba grabatu zuen Traña-Matienan, eta eguaztenean aurkeztu zuten Iurretako Maiztegi eskolan. www.anboto.org atarian dago ikusgai.

Aurkezpenean egoeraren balantze bat egin zuten. Euren esanetan, katering enpresek ez dute bete hitzartutakoa. Astean egun batez

euren menuetan bertako produktuak sartzea adostu zuten, hain zuzen. Bestalde, sukalde falta duten

Euren esanetan, katering enpresek ez dute bete hitzartutakoa

ikastetxeetan instalazio hori ipintzea eskatu izan dute, eta aurre-rapausorik ez dutela ikusi salatu dute. Hekuntza Sailak "lehentasun bat" izango zela esan zien arren.

Azken hileetan alderdi politiko batzuek euren dinamikari buruzko interesa agertu dutela ohartarazi dute, baina eskoletan "hain beharrezkoak diren hobekuntzak" ez direla eman esan dute.



Iurretako Maiztegi eskolan batu ziren bideo aurkezpenerako. Durangaldeko 12 ikastetxe publikotako kideak daude mugimenduan.

Erabilera anitzeko gunea egiten hasi dira

IZURTZA • J.D.

Martxan dira gaztelekua zena erabilera anitzeko gune berri bilakatzeko lanak. Joan zen astelehenean hasi zituen Gasteizko Indenort enpresak.

Hainbat lan egingo dituzte. Alde batetik, barruko espazioa berrantolatuko dute, eta gela handi bakarrean edo gela bitan banatuta erabiltzeko modua

Barruko espazioa berrantolatuko dute, eta azpiegiturak berrituko dituzte

egongo da. Bestetik, eraikina eraberritu egingo dute. Argiteria berritu eta aireztapen zein berokuntzako sistemak ipiniko dituzte, eta horiei hezetasunaren kontrako tratamendua emango diete. Horrez gainera, kanpoko argitasun naturala hobeto aprobetxatzeko, plazarako tunelaren aldetik leiho berriak egingo dituzte.



Emakumeen osasunari buruzko berbaldia eskainiko dute Mallabian

MALLABIA • J.D.

Hamabostaldi Kulturalaren barruan, hainbat ekimen egongo dira datozen egunetan. Esaterako, berbaldi bi prestatu dituzte. Batetik, Leire Askargorta emaginak emakumearen osasunaren arloan dauden mitoak eta errealitateak bereiztuko ditu datorren eguaztenean, 19:00etan, Kontzejuzarrean eskainiko duen hitzaldian. Nahikari emakumeen elkarteak antolatutako ekimena da. Bestetik, egunean, 16:30ean, lo egiteko arazoak dituztenei begirako berbaldia emango dute Kontzejuzarrean, Mallabiko Hirugarren Adineko Elkartearen eskutik.



Goi Mailako HEZIKETA ZIKLOAK

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 25 (larunbata) 11:00

Eskaintza akademikoa

- Automatizazioa eta Robotika Industrial
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrial

www.mondragon.edu/gmh
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91



Saibigaineko bataila eta errefuxiatuak gogoratuko dituen murala marrazten dabilta Mañarian

Udalak memoria historikoa lantzeko sortu gura duen guneko osagaietako bat izango da horma irudi berria



Wallart enpresako Aarón Diego eta pintatzen ari diren muraleko zati bat.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO
Frontoiaren eta kanposantuaren artean gune bat sortuko du udalak, gerra zibilean gertatutakoa gogoratzeko. Gune horretako osagai bat pilotalekuaren horma batean egiten hasi diren mural bat izango da.
Bilboko Wallart enpresako kide bi dabilta lan horretan. 6 metroko altuera eta 28 metroko zabalera izango ditu irudiak, eta hainbat

osagai izango ditu. Alde batean, soldadu bat marraztuko dute, Sai-
Frontoiko horma batean egiten dabilta irudiak 6 metroko garaiera eta 28 metroko zabalera ditu
bigaineko batailari erreferentzia egingo diona. Beste aldean, gerra

zibilak eragindako errefuxiatuen drama islatuko dute. Helburu "pedagogikoz" sortutako murala dela adierazi du Endika Jaio alkateak. "Sasoi batean euskaldunek kanpora joan beharra izan zutela ere gogoratu gura izan dugu", azaldu du.
Spraiagaz pintatuko dute, eta zuri-beltzeko murala izango da. "Kolare horiek gura duguna transmititzen laguntzen digute, iragane-

ko istorio bat kontatzen ari garela, hain zuzen ere. Gainera, ingurugaz bat egiten duten koloreak dira", adierazi du Aarón Diego Wallart enpresako kideak.
Eguraldia ez dute lagun izan hainbat egunetan, eta, horren ondorioz, ezin izan dute gura beste aurreratu. Murala amaitzeko, beste aste bi beharko dituztela kalkulatu dute.

Zelaieta-Muntsaratz arteko bidea zeharbide bihurtzeko hitzarmena sinatu dute

ABADIÑO • A.M.
Abadiño Udalak eta Bizkaiko Foru Aldundiak hitzarmena sinatu dute Abadiño Zelaieta eta Muntsaratz auzoen arteko bidea berritu eta zeharbide

Guztira, 1.208.676 euro bideratuko dituzte errepidearen zatia berritzeko lanetarako

bihurtzeko. Aurrerantzean, Abadiño Udalak izango da BI-636 errepideko zati horren titularra. Guztira, 1.208.676 euro emango ditu Aldundiak obrak finantzatzeko. Lan hauen helburua zeharbide bilakatzea da, ibilgailuen abiadura moteldu, bidegurutzak antolatu eta oinezkoentzat bidea hobetzeko.

Besteak beste, biribilgune bat egingo dute Muntsaratz, eta espaloia Elorrioko norabidean

Besteak beste, biribilgune bat egingo dute Muntsaratz sarrean, eta espaloia zati bat Elorrioko norabidean.

Otxandion lantalde bat sortu dute Lopez de Lacalleren egoera lantzeko

Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo batzar zabala

OTXANDIO • JOSEBA DERTEANO
Presoen eskubideen defentsan aritzeagatik auziperatutako 47 pertsonen kontrako epaiketa irailaren 16an hasiko da. Tartean, Egoitz

Lopez de Lacalle otxandiarra dago. Haien egoeraren berri herrian zabaltzeko eta epaiketak eragingo dizkien kostuekin laguntzeko, lantalde bat sortu dute Otxandion.

Joan zen zapatuan egin zuten lehenengo batzar zabala. Hara batutako batzuen artean lantalde bat sortu zuten, herrian ekimenak antolatzeaz eta egutegi bat sortzeaz arduratuko dena. Aurrera begira, batzar zabal gehiagora deituko dituzte herritarrak.
Ekainaren 1ean, auziperatu denek agerraldi bat egingo dute Donostian, aurrera begira dituzten asmoen berri emateko.

Garaiko nagusien elkartek irteera antolatu dute Aralar inguruetara

Mendukilo kobazulora joango dira, ekainaren 8an

GARAI • MARKEL ONAINDIA
Garaiko nagusien elkartek irteera antolatu dute, ekainaren 8an Aralar inguruetara joateko. Goizean, Artetako iturburua ezagutuko dute. Astizko aterpetxean

bazkaldu, eta arratsaldean Mendukilo kobazulora joango dira. Parte hartu gura duten bazkideek 26 euro eman beharko dituzte, eta besteek, 30. Ekainaren 1a da apuntatzeko azken eguna.



Hizlariak: Leire Unzueta, Rush, Keep Real Kultura Usue Egia eta eta "EtxE"

MAIATZAK 30, OSTEguna
Durangoko Andra Mari
20.00



ZINEMA KANPOAN

Oraingoz Izen Gabe (1986)
Errementari (2018)

EKAINAK 8, LARUNBATA
Gerediagako ermita / 18.00





MALLABIKO PILOTARIAK HERRI ARTEKO FINALEAN

Hareek denporak!

MALLABIAK PRONOSTIKOAK APURTU ZITUEN EGUNA

Mallabiak ezusteko handia eman zuen 1994ko Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketan. Mungian jokatuak finaletan, Berriz faborito nagusia menderatu eta pronostiko denak apurtu zituen. Izan ere, orain 25 urte talde itzela zeukan Berrizek: Bazeta, Eñaut Berasaluze, Mili-kua... Denak profesional izango ziren gerora.

Kadeteetan partidua galdu egin zuen Mallabiak (9-18). Mar-

tin II.ak eta Areianok ezin izan zituzten berriztarrak menderatu. Gazteetan, Mikel Solozabalek eta Ferreirok lehen garaipena eman zioten Mallabiari, partidu estu batean (18-16). Nagusietan, partidu erabakigarrian, Pradera IV.a eta Agus Solozabal nagusitu ziren (22-17), eta urte hartako txapela Mallabiara ekarri zuten.

Hirugarrenez irabazi zuten txapelketa. Aurretik, 1990ean eta 1991n gailendu ziren.

Durungaldea asteen

Bertoko produktuekin egindako askaria eskaini dute Zabalarra eskolan

Durango I Durangoko Zabalarra eskolan, bertoko produktuen kontsumoa sustatzeko ekimenak antolatzen jarraitzen dute. Hilaren 16an, 250 lagunentzako askaria egin zuten eskolan. Bertoko produktuekin eginiko bigarren askaria izan da, eta inguruetako produktuak dastatu ahal izan ziren: Patxikobasoko (Iurreta) ogia, Basatxerriko (Elorrio) urdaiazpikoa eta gazta, eta Errotikeko (Zornotza) jogurta; sasoiko fruta ere egon zen.

Txintxirri Ikastolako gazteak saritu dituzte gosari osasungarriak lehiaketan

Elorrio I Etxeko txikienak gosariaren garrantziaz ohartarazteko asmoz, Kaikuk eta Ikastolen Elkartek gosari osasungarrien aldeko ekimena jarri dute martxan; Txintxirriko eta Kurutziagako 10-12 urte bitarteko gazteek parte hartu dute bertan. Guztira, 400 ikaslek parte hartu dute, eta zein elikagai mota gosaldutik behar duten erakutsi diete. Txintxirriko ikasleek margoztutako behiak irabazi zuten lehiaketa. Honenbestez, 500 euroko saria irabazi zuten.

Abadiñoko Udalak doako wifi zerbitzua jarriko du herriko zenbait tokitan

Abadiño I Abadiñoko Udalak 15.000 euroko diru-laguntza jaso du Europako Batasunetik, herriko zenbait gunetan wifi zerbitzua ipintzeko. "Sareak eskaintzen duen informaziorako, aisialdiko eta denbora pasatzeko aukera hau herritar eta bisitari guztien eskura jarri gura dugu", adierazi du Jose Luis Navarro alkateak ohar bitartez. Muntzaratzeko, Zelaietako eta Matienako zenbait lekutan ipiniko dute zerbitzua.

Iritzia

Eta gazteontzako alokairurako diru-laguntza?

Gazteontzako alokairurako diru-laguntzen eskaria, 2018koa, 2019ko urtarilean egin genuen denok. Maiatzaren amaierara hurbiltzen ari gara, eta ez dugu hauen berririk. Oraindik ez dakigu diru-laguntzarik jasoko dugun ala ez 2018ko alokairuak ordaintzeko.

Zabalduko Ditugutik diru-laguntzetara bideratzen den kopuru urriaz gain, hauen prozedura ere kritikatzeko dugu. Ez da bidezkoa hurrengo urteko erdialdean oraindik erantzunik ez izatea, eta diru-laguntzen funtzioa bera ere zaltzan jartzen da hauek hurrengo urteko uda partean ordaintzean.

Gazteok etxebizitza eskubidea ahalbidetzeko neurri eta programa zentzuzkoak behar ditugu!

Luisa Oleaga, Ane Arbeo, Maialen Galarza, Ekaitz Andueza eta Ane Amantegi, Zabalduko Ditugu taldearen izenean (Durango).

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO**
Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Julián Ríos
Durangoko alkategaia

Neskutx Rodríguez
Zerrendako bigarren hautagaia

AURRERA DURANGO!



Notre Dameko organista, Durangon

MUSIKA
DURANGO : Maiatzak 26

Bach-en unibertsoa gogoratuz

Parisko (Frantzia) Notre Dame katedraleko hiru organistatarikobatek, Olivier Latryk, kontzertua eskainiko du, maiatzaren 26an, Durangon.

Hogeita hiru urte baino ez zituenean izendatu zuten Latry Notre Dameko organista, eta ordutik

hona bost kontinenteetan ibili da kontzertuak eskaintzen. Domekako kontzertua oraintsu kaleratu duen *Bach to the Future* lanean oinarrituko da, ordubeteko emanaldian zehar, Bachen unibertsoari omenaldia eginez. Andra Marian izango da kontzertua, 19:00etan.



'Gaiztoenetan gaiztoena' aurkeztuko dute, gaur, Arriola antzokian

ANTZERKIA | Non du jatorria gizakiaren gaiztakeriak? Berezkoa da? Ekidiezina? Iaz 200 urte egin zituen Victor Frankenstein inspirazio moduan hartuta, gure

kulturako zazpi pekatu kapitaletan eta bekatuaren kontzeptu orokorrean oinarrituta, gizaki berri bati emango dio bizia Atx Teatrok, gaur, Arriola antzokian:

izaki groteskoa, basatia, gupidagabea aurkeztuko dute *7ak bat*. Gaiztoenetan gaiztoena obraren bitartez.

Atx Teatrok komedia, satira eta sarkasmoa erabiliko ditu guztiok alfonbra azpian ezkutatu ohi duguna agerian uzteko. Iñaki Ziarrustak zuzenduriko obra 20:30ean eskainiko dute. Mirian K. Martxante, Estibaliz Villa eta Aiora Sedano dira aktoreak.

Maiatzaren 24an

DURANGO musika
Combo kontzertua, 18:00etan, Plateruenean.

DURANGO euskal astea
Eskolarteko XI. Pintura Lehiaketaren erakusketa zabalduko dute, Ezkurdiko erakusketa aretoan.

DURANGO euskal astea
Eskolarteko esku pilota txapelketa eta nesken pala txapelketa, 18:00etan, Ezkurdiko Jai Alai eta San Fausto pilotalekuetan.
X. Peter Memoriala esku pilota jaialdiaren final-laurdenak, 19:15ean, Ezkurdiko Jai Alai pilotalekuan. Durangoko Pilotazale Elkarteak.

DURANGO musika
Trikitixa entzunaldia, 19:00etan, Zelaieta Zentroko auditorioan. Zubiaur musika eskolak antolatuta.

Maiatzaren 25ean

ABADIÑO bertsoak
Bizkaiko Bertsolaritza Jaia. Eskolarteko idatzizko eta bat-bateko finalak, 10:00etan eta 11:30ean, hurrenez hurren. Taldekakoa, 17:00etan.

ABADIÑO garbiketa
Erreka garbiketa, 10:00etatik 12:00etara, Ferialekuan (2005etik 2008ra jaiotakoentzat). Uretarako oinetako eta arropak behar dira, toalla eta aldatzeko arropak. Informazioa: 654 78 97 09 katalamixon@gmail.com

DURANGO euskal astea
VXIII. Zesta-punta Txapelketako partiduak, Jai Alai, 18:00etan. Ezkurdi Jai-Alai Zesta Punta Eskola.

MALLABIA
kultur hamabostaldia
Mallabia Cup, eskolako frontoian eta LHIn. Maiatzaren 26an ere bai.

Madrilgo Caboverde musika taldeak Berrizen joko du, gaur

MUSIKA | 360° HZuzenean egitarauaren barruan, Caboverde musika taldea entzuteko aukera dago, gaur, Berrizen. *La peor versión de nosotros mismos* aurkezpen biraren barruan eskainiko du kontzertua musika talde madrildarrak. Emanaldia 22:00etan hasiko da, Kultur Etxean. Iazko irailean kaleratu zuten lehenengo diskoaren aurkezpena da egingo dutena.



ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **kultura@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

MAÑARIA lehiaketa
Arrantza txapelketa, 09:00etan. Mugarra Ateneo Zinegetikoa.

Maiatzaren 26an

DURANGO euskal astea
Mugarri Eguna, 08:30ean, Andra Mariko elizpean. Izena ematea, maiatzaren 24ra arte, Pinondon. Alpino Tabira Mendizale Taldea.
VXIII. Zesta-punta Txapelketa, 12:00etan, Jai Alai frontoian. Ezkurdi Jai-Alai Zesta Punta Eskola.

DURANGO musika
Garcia del Val, 13:00etan, Intxaurren. Domekak Musikaz.

Maiatzaren 28ra arte

ZALDIBAR lehiaketa
Zaldibarko jaietarako kartel lehiaketa. Lanak aurkezteko, udaletxean edo **kultura@zaldibar.eus** e-mailean. Sariak: 1.ak, 250 euro, 2.ak 150 euro. Haurrentzat ere egongo da.

Maiatzaren 29an

ELORRIO hitzaldia
‘Zertan gabiltza gaur egun?’. Hizlaria: **Kainabera elkarte**, 19:00etan, Iturri kultur etxean.

MALLABIA kultur hamabostaldia
‘Emakumeen osasuna: mitoak eta errealitatea’, 19:00etan, Kontzejuzarrean. Hizlaria: Leire Askargorta emagina. Nahikari emakume taldea.

Maiatzaren 30ean

DURANGO euskal astea
Pechakucha. Aurkezpen laburrak. 20irudi X 20segundo, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Gerediaga elkarteak antolatuta.

DURANGO musika
DJ Itsua, 22:00etan. Txoria Nuen Maite tabernan.

MALLABIA kultur hamabostaldia
‘Lo egiteko arazoak’, 16:30ean, Kontzejuzarrean.

Maiatzaren 31n

DURANGO erakusketa
Santos Okinaren margolanak, Napost tabernan. Azken eguna.

DURANGO erakusketa
‘Geometriak eta Fikzioak’ (Daniel Txopitea), Arte eta Historia Museoan.

DURANGO tribiala
Pub Quiz tribiala ingelesez, 21:30ean, Plateruena kafe antzokian.

DURANGO lehiaketa
Hizkuntza Eskola Ofizialeko 25. urteurrena ospatzeko kartel lehiaketa. Lanak aurkezteko azken eguna da, hizkuntza eskolako idazkaritzan edo **015054aa@hezkuntza.net** e-mailean. Saria: 600 euro.

Maiatzeko agenda



24

“HERRI BIBLIOTEKA”
Iurretako XVI. Literatur lehiaketako sari banaketa
13:30 DBH, BTX eta Helduak
15:00 DLehen Hezkuntza

29

“HERRI BIBLIOTEKA-GIZARTE ONGIZATEA”
10:00 Nagusientzako XL irakurketa kluba

31

“Mintzoan Kux-kux irakurketa kluba”
17:00 3-5 urteko haurrak
18:00 6-7 urteko haurrak
“HERRI BIBLIOTEKA Ibarretxe Kultur Etxea”
19:00 Helduen ipuin kontalaria
“A lo tonto” Ander Muñoz (Euskal Herria)



'Aladdin' emango dute, Durangoko eta Zornotzako

ELORRIO erakusketa
‘Yume Amets’ (Idoia Zubiaren lanak), Iturri kultur etxean. Azken eguna.

IURRETA ipuina
‘A lo tonto’, Ander Muñoz ipuin kontalariagaz, 19:00etan, herri bibliotekan.

MALLABIA kultur hamabostaldia
Gontzal Mendibil, Jasokunde eta Mendibil abesbatzekin, 21:00etan, frontoian.

ZORNOTZA musika
‘Girando con Carlos Cano’, 20:15ean, Zornotza Aretoan. Carlos Canoren abesti multzoa interpretatuko dute Luis Pastorrek, Rosario La Tremenditak, Aitor Velazquezek, Carmen Parisek eta Mikel Urdangarinek, Alberto Mirasen zuzendaritzapean.

Zinea

:: Durango ZUGAZA

• **Aladdin (2D)**
barikua **24**: 19:30
zapateria **25**: 16:45/19:30/22:30
domeka **26**: 17:30/20:00
astelehena **27**: 18:30/21:00
martitzena **28**: 20:00
eguaztena **29**: 20:00

• **Aladdin (3D)**
barikua **24**: 21:30
zapateria **25**: 17:30
domeka **26**: 17:00

• **El hijo**
barikua **24**: 19:30/22:00
zapateria **25**: 18:30/20:30/22:30
domeka **26**: 17:30/19:30/21:30
astelehena **27**: 18:30/21:00
martitzena **28**: 20:00
eguaztena **29**: 20:00

• **Como pez fuera del agua**
barikua **24**: 19:30/22:00
zapateria **25**: 20:30/22:30
domeka **26**: 19:30/21:30
astelehena **27**: 18:30/21:00
martitzena **28**: 20:00
eguaztena **29**: 20:00

:: Elorrio ARRIOLA

• **Los hermanos sisters**
zapateria **25**: 22:00
domeka **26**: 20:00
astelehena **27**: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Aladdin**
barikua **24**: 20:30
zapateria **25**: 22:00
domeka **26**: 17:00/20:00
astelehena **27**: 20:15

EUSKAL JAIK • ARITZ MALDONADO

Barikuan hasiko da Euskal Jaia, eta egitarauak 40 ekitaldi baino gehiago biltzen ditu. Aurten, nobedade nagusi bi izango ditu ekitaldiak. Alde batetik, maiatzaren 30ean Andra Mariko elizpean egingo den Pechakucha ekimena. Japoniatik ekarritako aurkezpen mota berritzailea da Pechakucha; hogeitasegundotan hogeitasegundogaz euren burua aurkeztu beharko dute Leire Unzueta argazkilariak, Rush free-runner-ek, Keep Real proiektuak, Usue Egia diseinatzaileak eta Iñaki Etxezarraga musikariak; 20:00etan hasiko dira aurkezpenak.

Akelarrea

Euskal Jaiari amaiera emateko, Kriskitin dantza taldeko kideek Akelarrea ikuskizuna prestatu dute, ekainaren 23rako. 60 dantzarik eta hainbat musikarik eta abesbatzako kidek parte hartzen dute proiektu honetan.

Urteetako tradizioa duten hainbat ekitaldi ere egongo dira aurten: Euskal Jaiaren edizioan, hala nola Peter Memoriala, Durango Hiria txistu ikuskizuna, Mugarri Eguna, eskolarteko pintura lehiaketa, antzerkia, Julene Azpeitiaren sari banaketa, Euskal Dantzen jaialdia eta zesta-punta txapelketako partiduak.

Herriko 28 elkartek indarrak batu dituzte Durangoko Euskal Jairako

40 ekitalditik gora jasotzen dituen egitaraua asteburu honetan hasiko da eta ekainaren 23ra arte iraungo du



Euskal Jaiko antolatzaileak egitarauaren aurkezpenean.

Maiatzaren 30ean Pechakucha ekimena egongo da, 20:00etan, Andra Marian

40 ekitaldi egongo dira; urteetako tradizioa dute horietako askok; tartean, euskal dantzen jaialdiak



Eraikina komentu kalean dago.

Hamarkada bete du Bizenta Mogel Bibliotekak

Maiatzaren 19an hamar urte bete ziren bibliotekak ateak zabaldu zituenetik, eta iragarki bat grabatu dute ospatzeko

KULTURA • A.M.

2009. urteko maiatzaren 19an zabaldu zituen ateak Komentu kaleko bibliotekak; 2017ko martxoaren 8an Bizenta Mogel Biblioteka ipini zioten izena, idazlearen omenez. Balantze ona egin dute kudeatzaileek. "Hamarkada honetan izan dugun harrera oso ona da, eta jaso ditugun datuek horixe

diote", azaldu dute bertako langileek sare sozialen bitartez. Haur eta nagusientzako 2.500 kultur ekitaldi baino gehiago antolatu dituzte hamarkada honetan, eta 1.800.000 bisita baino gehiago jaso ditu bibliotekak. Urte hauetan, 75.000 ale baino gehiagoko bilduma osatu dute, eta 600.000 mailegu baino gehiago egin dituzte.

AUTOBUSA DEBALDE
DURANGO ↔ MAÑARIA

01/06

MAÑARIKO GARAGARDO AZOKA

EUSKAL HERRIKO GARAGARDO ARTISAUAK

17:00 MAGO/MAGO 18:30 COOKING SHOW TALO BEREZIEKIN

18:00 AZOKAREN HASIERA & BRINDISA 18:10 ELEKTROTXARANGA

20:00 1.ª GUDA AKUSTIKOA 23:00 2.ª GUDA AKUSTIKOA

23:00 ZOKKETA SORTEO 02:00 ESPUELA

ANTOLATZAILEAK: GARAI, Mañariko Udala

Mañariko Garagardo azoka



“Diskoak Tres41ren soinua du, baina gauza berriak probatu gura genituen”

Lan berriagaz itzuli dira oholtza gainera; hurrengo kontzertua Markinan izango dute, maiatzaren 31n

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Maizatzean, 'Ceremonia Animal' kaleratu du Tres41 taldeak. Asier Otadui Zanak, Mario Cosmek, Mikel San Cipriano Purok eta Imanol Bilbaok osatzen dute taldea. Muturrera eraman dute euren hardcore, punk eta metal doinuen nahasketa, gozoa zena gozatuz eta basatia zena are basatiago eginez. Trasteak Ermuko (Gipuzkoa) Vertigo Rock jaialdirako prestatzen zebiltzala harrapatu ditugu lokalean.

Zer da 'Ceremonia Animal'?

Mario Cosme: Diskoko abesti bat horrela deitzen da. Berbak jarri genizkionean, ikusi nuen bat zetorrela lan osoak atzean duen ideiaz. 'Ceremonia', jai moduan ulertzen dugunagatik, eta 'Animal', basakeriagatik. Askoz ere gehiago zabaldu gara disko honetan. Polita zena politago egin dugu, azkarra zena azkarrago egin dugu, makarra zena makarrago egin dugu. Muturrera eraman dugu dena, eta horregatik izan da jai bat.

Bestelako doinuak ageri dira aurre-rapen kantuetan.

Imanol Bilbao: Disko honetan gure erreferentziak erakutsi gura izan ditugu. Aurrerapenetan ere entzuleak disko osoan aurkituko duena ikustea gura genuen.

M.C.: Tres41en doinuak ditu diskoak, jendeak badaki nondik joango garen, baina, aldi berean, gauza berriak probatu gura genituen, horrek behar handia suposatzen digun arren.

Zeri buruzkoak dira letrak?

M. San Cipriano: Hor ere denetik dago, baina kritika soziala eta letra pertsonalak dira batez ere. *Resilientes* aurreko lanean ere horrela izan zen, baina ilunagoak izango ziren beharbada.

M.C.: Orokorrean, horrela egin dugu beti. Gure iritzia emango dugu ikusten ditugun gaiei buruz. Hiru

“

Hitzetan denetik dago, baina kritika soziala eta letra pertsonalak dira, batez ere”

—

abestitan hiru lagunek lagundu digute letrekin.

Bigarren lana duzue laukote moduan. Egonkortu zarete?

M.S.: Bizitzak bide batzuetatik zaramatza, eta geroago eta gehiago kostatzen da. Ni entsegu biren ondoren sartu nintzen grabaketara. Etxean behar asko egin behar izan dugu.

I.B.: Behar egiteko modua aldatu behar izan dugu, laneko txandengatik, umeak... Mariok Whats Appak bidaltzen zizkidan gitarra riffekin, eta tartean bere semea ere entzuten zen (barrez). Horren gainean egiten nuen behar, eta gero, gainontzekoei pasatu, faszikuluka balitz bezala.

M.C.: Alde horretatik, apur bat desesperagarria izan da. Ideia bat eduki, eta emaitza ikusi orduko denbora asko pasatzen baitzen.



ENEKO BACETA

Exigentzia maila ere nabarmen igo dugu.

Zelakoa izan da grabazioa?

I.B.: Bateria doinuak Madrilgo Sadman estudioan grabatu ditugu, eta gainerakoa Berrizko Estoldetan, Igor Iglesiasegaz.

M.C.: Masterra AEBetan egin dugu, Brad Boatright-egaz, Convergeren eta Baptistsen diskoetan behar egin duelako. Ez genekien zer izango zen, baina animatu egin ginen, eta asmatu dugulakoan gaude.

Asier Otadui: Oso pozik gaude emaitzagaz. Igorrek eginiko lana errespetatu du, eta guretzat garrantzitsua zen hori. Itzela da konfiantzazko norbaitegaz lan egin ahal izatea, sortzen den loturagatik. *Ceremonia Animal* hau Igorrena ere bada, hein handi batean.

“

'Ceremonia Animal' Igor Iglesiasena ere bada, hein handi batean”

—

Orain zuzenean aurkeztuko duzue?

M.C.: Zuzenean jotzeko, grabatzeko ibili garen moduan ibiliko gara, izorratuta. Dugun denbora baino ez dugu, eta, behingoagatik, beteko gaituzten gauzak egin gura ditugu. Diskoaren aurkezpena, adibidez, Andikoako ermitan egin genuen.

A.O.: Iaz, Zaldibarko Sorginen jo genuen, domeka eguerdi batez, eta sekulakoa izan zen.

I.B.: Gauzak aldatu behar direla uste dugu.

Izan duzue kolaboraziorik?

M.C.: Disko bakoitza egin dugunean, jende askok lagundu digu, eta horrek asko aberasten du. Gehien ikusiko den lana Fernandorena [El Corazon del Sapo, Kuraia, Estricalla] izango da, noski, baina ez da bakarra izan. Shinovako Erlantzek 'sinte' pare bat egin dizkigu, eta nire anaia Asierrek gitarrako konponketa pare bat. Diseinua Alain Asenjorena da.

M.S.: Orain urte bi elkarregaz jo genuen Tres41ek eta Estricallak. Jotzen geundela, gure kantak abesten zebilela ikusi genuen. Itzela!

I.B.: Biniloekin ere, lau banatzailek eta Mañariko U2 tabernak lagundu digute.



GARA

PAPEREZKO
EDIZIOA

GARA egunkaria desagertzeko arrisku larria dago!!!

Izan ere, Gizarte Segurantzari 3 milioi euro baino gehiago ordaindu behar baitio bi urteko epean!!!

GARAk 10.000 pertsona solidarioren laguntza behar du desagertzea ez dadin!!!

GARAr laguntzeko harpidetza mota ezberdinak daude.

Beraz, mesedez, egin itzazue zeuen harpidetzak hemen: **943 316 999** telefonoan / Interneten bidez helbide honetan: **www.naiz.eus**

Durangaldeko hiru talde arituko dira Bizkaiko bertsolaritza jaian, Abadiñon

Zapatu honetan, hilak 25, taldekako eta eskolarteko finalak jokatuko dira probalekuan, egun osoko festan

BERTSOLARITZA • KAROLINA SUAREZ
Miotako Bidelapurak (Berriz eta Elorrio), Tronperrieta (Iurreta eta Durango) eta Koipelustre's (Abadiño) taldeak arituko dira Bizkaiko bertsolaritza jaiko finalean. Bihar izango da saioa, Abadiñoko probalekuan, 17:00etan. Aurretik egindako hiru finalaurrekoetan sailkatu dira Durangaldeko hiru taldeak.

Ainhoa Urien Telletxe Koipelustre's talde abadiñarreko partaidea da, eta taldekako finalari begira indartsu daudela baieztatu

Idatzizko finalean Bizkai osoko 150 bat gazte batuko dira, bost mailatan banatuta

du: "Taldea indartsua dugu, eta saio ona izatea itxaroten dugu". Durangoko eta Iurretako taldeek ere modu positiboan berba egin dute aurreko saioen gainean. Tronperrieta taldekako Erika Lagoma Pombar bertsolariak "final polita" egitea itxaroten dutela dio. "Oso talde jatorra batu gara, gustura pasatu dugu elkarregaz, eta, gainera, saioak ondo irten dira", gaineratu du. Lehenagoko saio biek gogoratu da Iruri Altzerreka Martinez. Bigarrenean, markinarrekin parekatuta ibili ei ziren, eta finalera "disfrutatzeko eta ondo pasatzeko gogoz" doaz Miotako Bidelapurak.

Bertsolaritzan, desberdina da taldeka edo bakarka aritzea. Urieni, esate baterako, taldeka

aritzeak beste modu batera eza gutuko ez lukeen jendea apur bat gehiago ezagutzeko aukera eman dio. "Herria ordezkatzeko aukerak talde izaera indartzen du", adierazi du. Hari berari helduta, taldeak kohesionatzeko era dela berretsi du Lagomak: "Elkarrekin egoteko beste modu bat da". Altzerreka ere konfiantzaz mintzatu da: "Konfiantza gehiagogaz aritzeko aukera ematen du taldekakoak. Informalagoa da, eta bakarka ausartzen ez denak ere badu lekua".

Eskualdeak aktibatzeke eta indartzeko helburua du taldekako saioak. Aurtengo finalean Durangaldeko taldeak dira guztiak, eta Urienek esan duen moduan, "irabazten duenak irabazten duela ere, etxean geratzeko da txapela". Txapelketei begira, Durangaldean bertsotarako "oso maila ona" dagoela onartu du Lagomak, baina hobe izatea gustatuko litzaiokeela ere aipatu du.

Eskolartekoak

Goizean, eskolarteko finalak izango dira. Idatzizkoa 10:00etan izango da, eta bat-batekoa, 11:30ean. Gazteak bertsolaritzara erakar-

38 bertsolarik parte hartu dute eskolartekoan, eta finaleko saioan zortzi bertsolari arituko dira

tzeko helburua du eskolartekoak. Durangaldeko Bittor Altube eta Ander Sarriugarte arituko dira bat-bateko finalean.



Tronperrieta (Durango eta Iurreta).



Miotako Bidelapurak (Berriz eta Elorrio).



Koipelustre's (Abadiño).

Gai librea

José
Julian
Bakedano
Zinemagilea



Hermann Kesten

Hermann Kesten (Podwoleczyska, Alemania 1900 - Basilea, Suitza 1996). Judu alemana. 1933an nazismotik ihes egin zuen, Frantziara, Bruselara eta Amsterdamera. Lau eleberri idatzi zituen, 1939an Frantziako konfinamendu-esparruetara eraman aurretik. 1940an Estatu Batuetara ihes egin zuen, eta han Thomas Mann-ekin bizi izan zen. Errefuxiatuen batzordeko ohorezko aholkularia izan zen, eta Gestaporengandik ihes egiten laguntzen zien idazle eta artistei. 1977ra arte Erroman bizi izan zen. Fernando eta Isabel idatzi zuen, Errege katolikoen kontrako lana. Yo, la muerte ere idatzi zuen, Felipe II.aren irudi negatiboa ematen zuena.

Los niños de Guernica da bere nobelarik ezagunena. Gaztelaniaz editatu zuten eta debekatu egin zuten Espainian. Thomas-ek liburuaren hitzaurre ederra idatzi zuen. Liburu honek gure bihotzak berpizten ditu. Gerrak astindutako mutiko euskaldun bat da protagonista. Gizakiak jarrera basatia hartzen duela kontatzen du mutikoak. Baina, hala ere, beste era bateko kontuak ere entzun daitezke. Hau, adibidez: 'jazarpenik txarrenen artean, badira ere gizon on asko Lurrean'. Los niños de Guernica gerra zibileko eleberririk gorena da. Teknika ausarta darabil idazleak, eta baliabide harrigarriak. Bizitzaren aurkikuntza da liburuan aipagarriena, familiaren bitartez datorkiguna, tragediak heldu bilakatzen duen mutiko baten bitartez. Errepublikaren aldeko eleberri hau Condor legio alemanak egindako bonbardaketa zabal islatzen duen lekukotza literario bakarra da. Kestenek herritarren ikuspegia aukeratu zuen libururako, eta biktimen ikuspuntutik deskribatzen du gerra.



merkataritza gida sarean

anboto.org/gida

Ezagutu eta erabili Durangaldeko merkataritza gida euskaraz eta sarean!

Merkataritza gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902

Argazkiak - Datuak - Kokapena (urtean 50€)

AUZORIK AUZO 2019

Iurreta Euzko Leizateko Udala

Ekainak 1

San Andres auzoan

18:00 GONTZAL MENDIBIL

eta jarraian auzokideen luntx xume bat



“Tabirako-Baquen oso talde gaztea dugu; 25 urtegaz hirugarren jokalaririk zaharrena naiz”

Durangoko saskibaloia klubeko erreferenteetakoa den David Tudelak amaitu berri den denboraldia errepasatu du



Urte bian EBA mailan jokatu zuen David Tudelak Tabirako-Baquera itzuli aurretik.

SASKIBALOIA • JOSEBA DERTEANO

Azkoitian jokaturako Lauko Finallean, Tabirako-Baque ezin izan zen finalerako sailkatu. Denboraldi eder baten ondoren, pena horixe geratu zaie. Taldeko erreferenteetariko bat den David Tudela Alvarazek (Durango, 1993) amaitu berri den denboraldiaren errepasoa egin du.

Lauko Finaleko finalerdian 72-77 galdu zenuten Hernaniren kontra. Norgehiagoka orekatua izan zen. Non egon zen partiduko gakoa?

Oso talde garaia dute. Kategoriko talderik garaiena dela esango nuke, eta hori baliatzen saiatu ziren. Barrualdeko jaurtiketak egiten utzi ziguten, gure hutsak bilatzeko eta ondoren errebotea eurek hartzeko. Oso partidua parekatua izan zen, bai. Bost punturen barruan ibili ginen ia beti, batzuetan gu aurretik eta beste batzuetan eurak. Azken laurdean erabaki zen finalerdia.

Porrot horrek zapore garratza utzi dizue ala gustura zaudete aurten egindako lanagaz?

Mailaz igotzeko ilusioa geneukan. Horixe zen gure helburua, kategoriaz igotzea. Denboraldiko zati handi batean lehenengo joan gara. Ondoren, alde aurretik irabazitzat jotako partidua bi galdu egin genituen, teoriant gu baino gutxiago ziren taldeen kontra. Sailkapenean hirugarren tokian geratzera eramanez gintuen horrek, gure helburu nagusia lehenengo geratzea eta zuzenean igotzea zenean. Azkenean, Lauko Finala jokatu behar izan dugu, eta horrelako hitzorduak loteria bat izaten dira sarritan. Adibide bat jarriko dizut: aurten Hernaniri ligako partidua biak irabazi dizkiogu, baina Lauko Finallean begira zer gertatu den.

Beraz, gehiago itxaroten zenuten.

Oso pozik gaude denboraldiagaz. Partidua onak jokatu ditugu sarritan. Lauko Finallean, beharbada, gehiatxoago itxaroten genuen. Gutxienez, finala jokatzeko esperantza geneukan.

Zelako taldea izan duzue aurten?

Jokalaria gazte asko ditugu. Ni, 25 urtegaz, taldeko hirugarren zaharrena naiz. Batzuentzat estreinako urtea izan da talde nagusian eta beste gazte batzuei oraindino apur bat gehiago zailtzea falta zaie. Esperientzia falta izan zaigu. Gaztetasunak alde ona ere badu: fisikoki ondo eutsi diegu partiduei.

Zu zeu gustura zaudete egindako denboraldiagaz?

Oso ondo sentitu naiz, denboraldiko azken zatian bizkarreko lesio bat izan nuen arte. Hile eta

“**Oso pozik gaude denboraldiagaz, baina Lauko Finallean finalera sailkatzeko esperantza geneukan**”

erdi entrenatu barik egon nintzen. Itzuli nintzenean, igarri nuen geldia egondako denbora. Ez nintzen hain gustura sentitu. **Neskek ere Lauko Finala jokatu eta ezin izan zuten finalerdia gaintitu. Azken esprinta falta izan zaizue?** Bai, beharbada bai, baina denboraldiko lana oso ona izan da talde bien aldetik. Klubak harrobi ona duela eta behetik jendea badatorrela erakusten du horrek.



CLA Coupe Berria.

Zeuk ipintzen dituzu arauak.

Gozatu bere kiroltasuna, MBUX adimen artifiziala duen sistema, ahotsaren bidez aktibatzen dena, eta barruko diseinu zabalagoa.

CLA 180 Coupe orain aldaketa automatikoa duena 7G-DCT, AMG Line eta Premium paketea.

290€/hilean¹

48 kuotatan. Hasierako diru-ekarpena: 11.806,52€.
Renting Complete, segurua, bermea eta mantentze-lanak barne².

Kontsumo nahasia : 6,1-6,6 (l/100Km).
CO₂ isurtzea: 138-149 (g/km) (NEDC: 123-136).



¹Renting-adibidea: Mercedes-Benz Complete-rekin CLA 180 Coupe, Aldaketa automatikoa, AMG Line eta Premium Paketea dituen; hilean 290€-ren truke, BEZ barne. Sarrera 11.806,52€, BEZ barne, 48 kuotatan eta 80.000 km. Baliozko eskaintza 31 urte baino gehiagoko bezeroentzat, pneumatikoak ez daude barne. Iraunaldia: 2019/06/30era arte egindako eskaintza, 2019/07/15era arte onartutako eskariak eta kontratua indarrean egon 2019/08/31era arte. Iraunkortasuna: 24 hilabete gutxienez. Mercedes-Benz Complete, Mercedes-Benz Renting S.A.-Bruselas etorbidea, 30, 28108, Alcobendas (Madrid)-ek komertzializatzen duen marka da. ²Higadura-piezak barne, pneumatikoak izan ezik. Argazkiko modeloa agian ez dagokio eskaintzari. Informazio gehiago www.mercedes-benz.es-enRenting-adibidea Mercedes-Benz Complete-rekin: CLA 180 Coupe, aldaketa.

TXIRRINDULARITZA • M.Z.

Eustrak-Euskadi taldeko Illart Zuazubiskar txirrindulari abadiñarrak bere kirol ibilbideko garaipenik garrantzitsuenak eskuratu du, UCI-ko mailarik goreneko lasterketa batean. Kazakhstanen jokatu diren Silk Way Series probetan irabazi du, hain zuzen ere. "Orain arte lortu dudana garaipenik garrantzitsuenak da eta pozarren nago", adierazi du Zuazubiskarrek. Scratch proban garaipena lortzeaz gainera, puntuaketan hirugarren izan zen, eta omniumean, bosgarren. "Oso gustura sentitu naiz parte hartu dudana proba guztietan. Hala ere, lasterketaren batean aurrerago egoteko aukera izan dudala uste dut", jarraitu du abadiñarrak.

2016an Eustrak-Euskadi taldeagaz fitxatu zuen Zuazubiskarrek, eta, harrezkero, maila profesionalean lehiatzen dabil. "Taldera batu nintzenean, maila oso onean egotea lortu nuen. Esaterako, Caliko (Kolonbia) Munduko Kopan podiumaren borrokan ibili nintzen", esan du. Gainera, sasoi hartatik BAT Basque Team taldearen babesa du abadiñarrak.

2018an, oster, ez zituen "itxarondako emaitzak" lortu. "2018a urte zaila izan zen, emaitzak ez ziren heldu eta nire sasoi onenetik urrun nengoela ikusten nuen", jarraitu du. Orduan, hori ikusita eta urtarileko Munduko Kopako

"Urte gogor baten ondoren, emaitzak behar nituen, eta garaipenak konfiantza eman dit"

Nazioarteko bere lehenengo garaipena lortu du Illart Zuazubiskar txirrindulari abadiñarrak, Kazakhstanen



Illar Zuazubiskar erdian.

probetan egon eta gero, prestakuntzan aldaketa bat egitea erabaki zuen txirrindulariak. "Ordutik, gogor lan egiten nabil, eta nire asmoa horrela jarraitzea da". Badirudi lana hasi dela fruituak ematen, eta

Zuazubiskarrek bere kirol ibilbideko garaipenik garrantzitsuenak lortu du. "Urte gogor baten ondoren, emaitzak behar nituen, eta garaipenak konfiantza handia eman dit", esan du Zuazubiskarrek.



Elordik Urretabizkaia II.a eta Zabala kanporatu ditu finalerako bidean.

Binakakoa lortuta, buruz burukoa gura du Elordik

Pilotari mallabitarrek zapatu arratsaldean jokatu du Promozio Mailako finala, Iruñeko Labrit pilotalekuan

PILOTA • J.D.

Promozio Mailako binakako txapelketa irabazi eta hilabete bi eskasera, buruz buruko finala jokatu du Aitor Elordi mallabitarrek. Iruñeko Labrit pilotalekuan izango da, 17:45ean hasiko den jaialdian.

Elordik Urretabizkaia II.a eta Zabala kanporatu ditu finalerako

bidean. Bihar, Dario Gomez errioxarra izango du aurkari. Kolpe handiko pilotaria da, luze-luzekoa. Hala ere, binakako txapeldu-nak badiu baliabideak errioxarrari aurre egiteko. Tantoak amaitzen abilagoa da, defentsa lanean gora egin du, ezker gantxoia dotore maneiatzen du eta sakean ere min handia egin dezake.

Asteko kirolaria

BEGOÑA MARTINEZ TELLERIA

Durango, Atletia

Durango Kirol Taldeko kirolariak urrezko domina irabazi du Espainiako heptatloia txapelketan, atletismoan dagoen diziplinarik gogo-

"Heptatloian teknika ona izateko, abantaila izugarria da gaztetatik aritzea honetan"

Espainiako heptatloia txapelketan urrezko domina lortu berri du Begoña Martínez Telleriak

rrenetarikoa. Sonia Oceja eta Eva Muñoa taldekideak ere dominekin itzuli dira Madrilid.

Espainiako txapelketan, urrezko domina lortu berri duzu heptatloian, zazpi probetatik sei irabazita.

Txapelketa ondo irten zitzaidan eta pozik nago egindako lanagaz. Hala ere, hezian proban ez nuen nire marka egitea lortu, eta horretan arantzatzkoa daukat. Horrez

gainera, horrenbeste probatan norbere markak hobetzea eta denak bikain irtezea oso gaxa da. Beraz, pozik nago emaitzagaz. Gainera, aurten beste urte batzuetan baino gutxiago entrenatu naizela ere kontuan hartu behar dut.

Esperotako emaitza izan da? Egia esan, podiumean ikusten nuen neure burua, baina zalantza batzuekin joan nintzen txapelketara. Lehen esan dudana moduan,

aurten beste urte batzuetan baino gutxiago entrenatu naiz, eta probaren batean huts egiten baduzu eta aurkariak dena ondo egiten badute, lehenengo postuak garesti egoten dira.

Beste behin ere, atleta konpletoa zarela erakutsi duzu.

Heptatloian irabazteko, derrigorrez izan behar duzu atleta konpletoa. Besteak beste, hesien proba, pisu jaurtiketa eta jauziak dituzu,

eta ezinbestekoa da teknika ona izatea. Gainera, bakoitzaren teknika mundu bat da, eta horiek ikasi eta denetan txukun moldatzea ez da erraza. Heptatloian teknika ona izateko, abantaila izugarria da gaztetatik aritzea honetan.

Zer suposatu du zuretzat garaipen honek?

Beste garaipen bat da. Parte hartzen dudana proba eta txapelketetan, normalean aurrean ibiltzen naiz, eta garaipen hau ere horren adibide da. Baina, tira, pozarren nago lortutako emaitzagaz.

Zein da zure hurrengo helburua?

Uztailaren 13an klubaren arteko Espainiako Txapelketara joango naiz. Han lan ona egitea eta disfrutatzea izango dugu helburu.

Bulegorako zigiluak
Fotolitoak

Betikoak
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9
48215 IURRETA

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 · Faxa: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

KABITU EZINA
Aintzane Usandizaga (2019)

PAULATXO
Askoren artean (2019)

LA POLLA RECORDS
NI DESCANSO, NI PAZ (2019)

Asteburuko azken jardunaldian erabakiko da lurretako eta Abadiño futbol taldeak mailaz igotzen diren ala ez

lurretakok Urduliz taldearen hutsa behar du; Abadiñok, oster, bere esku du igoera

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bizkaiko futbol ligetako azken jardunaldiaren atarian, eskualdeko talde biren etorkizuna erabaki barik dago oraindino: lurretakorena Ohorezko Mailan, eta Abadiñorena maila bi beherago, Lehenengo Erregionalean.

lurretako Hirugarren Mailara zuzenean igo ahal izateko matematikak errazak dira. Emaizta bi behar ditu, derrigor: bere partidua

irabaztea eta Urduliz liderrak galtzea. Baldintza bi horiek bete ezik, ez da zuzenean igoko.

Kasurik txarreanean, igoera fasea jokatu du lurretakok, Gipuzkoako eta Arabako bigarren sailkatuekin batera. Zoritzarrez, baliteke igoera faseak saririk ez izatea. Bigarren B Mailako jaitzieren eta Hirugarren Mailako igoe- ren baitan dago dena. Galtzen den azkena ei da itxaropena, eta lurre-

takok badu esperantzaz sinesteko arrazoirik. Joan zen asteburuan, garaipena derrigor behar zuten partiduan, 0-2 galtzen hasi zen

lurretakok aldats gora jarritako partidua (0-2) irauli (3-2) eta esperantzari eusten dio

etxean. Baina partidua iraultzeko kapaz izan ziren jokalaria. Luza- penean sartu zuten garaipenaren gola. "Horixe da oraindino bizirik mantentzen gaituena. Sekula ere ez da jakiten. Gure partidua irabazi eta ikusiko dugu bestean zer gertatzen den", adierazi du Jon Gurutz Vazquez entrenatzaileak. Ondarroan jokatu dute, zapatuan.

Abadiño, garaipen batera

Abadiñoren matematikak lurretakorenak baino errazagoak dira. Liderrak dira eta euren esku dago Maila Gorenera igotzea. Etxetik kanpora jokatu dute, zapatu arratsaldean, jokoan ezer ez duen Gernikaren kontra.



Joan zen asteburuan, lurretakok luzapenean lortu zuen garaipenaren gola. **JON IGLESIAS**



Abadiñok Gernikaren kontra jokatu du azken partidua.

Boels Dolmans taldeko Jolien D'Hoore belgikarra bizkorrena Emakumeen Birako lehenengo etapan

Intoxikazio baten ondorioz, Ziortza Isasik ez du parte hartu



Esprintean amaitu zen lurretako etapa.

TXIRRINDULARITZA • M.Z.

Eguaztenaz geroztik, munduko txirrindularirik onenak Euskal Herriko errepideetan zehar dabilta. Atzo, lurretan hasi eta amaitu zen lasterketa, eta Boels Dolmans taldeko Jolien D'Hoore txirrindularia izan zen bizkorrena. Esprinterako dituen dohainak erakutsita, lehenengo tokian helmugaratu zen belgikarra. Boels Dolmans taldeko txirrindulariaren atzetik, Sofia Bertizzolo italiarra sailkatu zen bigarren, eta Gracie Elvin australiarra hirugarren.

Bestalde, Eneicat taldeko txirrindulariek ezin izan zuten parte hartu, tartean Ziortza Isasi elorriar- rak. Eneritz Iturriagaren taldeko

txirrindulariak salmonelosiak jota daude. Burgosko Itzulian intoxika- tu ziren.

Kennedy nagusi Durangon

Emakumeen Biraren atarian, aste- lehenean, Durango-Durango klasi- koa jokatu zen. Michelson-Scott tal- deko txirrindulariek, beste behin, talde indartsua dutela erakutsi eta lehenengo kilometroetatik lasterketa kontrolpean izan zuten. Garaiko igoeran Lucy Kennedyk ihes egin, eta erakustaldia emanda helmugaratu zen. Bere taldekide Amanda Spratt eta Soraya Paladin (Ale Cipollini) bigarren eta hiruga- rren izan ziren, hurrenez hurren.

Adituaren txokoa

Oihana Azkorbebeitia Urizar
Mendi korrikalaria



Munduko Kopa, martxan

Mendi lasterketen aurtengo Munduko Kopa guztiz aldatuta dator. Aurreko urteetan ez be- zala, aurtun zirkuitu bakarra dago. Horren ondorioz, inoizko mailarik handiena izango da lasterketetan.

15 lasterketak osatzen dute Munduko Kopa hau, eta ho- rietako lauk bikoitza puntua- tzen dute. Beraz, korrikalaririk gehientsuenek proba hauetan parte hartu nahiko dute.

Lau lasterketa jokatu dira dagoeneko: Japonian, Txinan, estatu espainolean (Transvul- cania) eta estatu frantsesean. Bosgarrena Portugalen izango da, Madeiran, ekainaren 1ean, eta, datari erreparatuta, susmoa dut maila handiko lasterkari gutxi joango dela hara. Izan ere, bihamunean, ekainaren 2an, Zegama-Aizkorri mendi mara- toiaren txanda da, eta, Golden Trail Series zirkuituan sartuta egonik, munduko eta Euskal Herriko korrikalaririk onenak hantxe izango dira.

Munduko Kopako hurrengo hitzorduak Italian (3), Grezian, Katalunian (2) Andorran, Nor- vegian, Suitzan eta Bulgarian izango dira. Denetara joatea ia ezinezkoa da eta korrikalari ba- koitzak bere aukeraketa egingo du, dena delakoaren arabera.

Oraingoz, Megan Kimmel es- tatubatuarra da liderra nesken sailkapen nagusian, eta Thi- baut Garrivier frantziarra mu- tilenean. Baina sailkapen hau behin-behinekoa da, batzuek proba gehiagotan parte hartu dutelako. Azkenean, korrikala- ri bakoitzaren bost emaitzarik onenak hartuko dira kontuan, eta horietan batutako puntu ko- puruaren arabera jarriko dugu (edo ez) dortsala Italiako fina- lean, Kopako hamaseigarren lasterketan.

Hantxe egon nahi nuke, eus- kal selekzioko kideekin batera.

katerin ardoak
iñaki uribe

25^{ente} Saltsan

Eguneko menuak - Asteburuetako menu bereziak
Delicatessena - Ardotegia

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

MAIATZAREN 30, 31n eta EKAINAREN 1ean BAKARRIK

FLASH EGUNAK

%60^{ra} KOPURU MUGATUA!

arteko deskontuak

KOLTXOIAK | OHE-OINARRIAK | BURKOAK | OHEKO ARROPA

bed's

bed's Durango

Alluitz kalea, 1
Tel.: 94 400 5980

beds.es

ETXETXO
G. INMOBILIARIA
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO
www.inmoetxetxo.com

AMBOTO
INMOBILIARIA
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ISD Inmobiliaria
del Duranguesado
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

Fernando Uribe
AGENCIA INMOBILIARIA
Barrenkalea, 15 beheha • 946 816 423
48200 DURANGO • Bizkaia

www.inmoetxetxo.com

DURANGO 3 logela
2 komun
Ezkurdi. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela handia. Terraza eta ganbara.
226.000€

AUKERA 3 logela
1 komun
AUKERA! 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela eta terraza. Dena kanpoalderantz. Berriztuta.
97.500€

DURANGO 3 logela
95 m²
ANDRA MARI: 95m². 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela handia.
145.000€

IURRETA 2 logela
1 komun
IURRETA: 2 logela, bainugela 1, sukalde-jangela, sala, terraza. Bizitzera sartzeko prest. Eguzkitsua.
115.000€

ZALDIBAR 3 logela
92 m²
ZALDIBAR: 92m². Erdigunean. 3 logela, bainugela 1, sukaldea, egongela terraza handiarekin. Ganbara eta garajea.
120.000€

OTXANDIO 3 logela
1 komun
OTXANDIO: 3 logela, bainugela, sukaldea, despentsa, egongela, ganbara eta garajea.
98.500€

//ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO. Eraikin berria. Bi eta hiruko logelak, azken duplex-ak salgai. 178.000.-€ tik hasita.

DURANGO. Komentukale. Logela biko pisu ederra, sukaldea, egongela, bainugela bi, oso eguzkitzua, igogailua eta gasarekin.

DURANGO. Antso Estegiz. Hiru logelako pisu ederra. Igogailua, gasa eta oso euskitzua.

DURANGO. Jose Miel Barandiaran. Pisu ederra, hiru logela, komun bi, sukaldea, egongela, garajea eta trastelekua. Aukera ederra Durango erdian bizitzeko.

DURANGO. Komentukale. Pisu ederra, hiru logelakoa, bainugela bat, sukaldea, egongela, eta ganbara. Bista ederrak

BERRIZ. Hiru logelako pisua. Bainugela, egongela, ganbara ere badu. Oso eguzkitzua eta merkea.

DURANGO. Goienkale kalean. Logela biko pisu ederra, 90 m² ganbarekin.

IURRETA. Maspe kalean. Hiru logelako pisu argitzua. Egongela eta sukaldea balkoiarekin, komuna eta igogailua.

DURANGO. Hegoalde kalean, izugarritzko adosatua salgai, 4 logela, 4 bainugela, txokoa, terraza, lorategia, ezin hobea.

LEKEITIO. 3 logelako etxebizitza, bainugela, sukaldea, egongela terrazarekin, garajea. Urbanizazio pribatu baten barruan, igerileku eta frontoiarekin.

ATXONDO. Etxebizitza 2 logelarekin, bainugela, despentsa, sukaldea esekitokiarekin, eta egongela.

ZALDIBAR. Etxebizitza, 3 logela, bainugela, sukaldea, egongela balkoiarekin, guztiz berriztatua. Horrez gain, trastelekua.

//LURSAILAK SALGAI

ABADIÑO. 1.000 m²ko lursaila salgai, bifamiliarra eraikitze baimenarekin. Zonalde egokian.

BERRIZ. 10.000 m²ko lursaila. Zelai ederra, sarbide oso onarekin.

IURRETA. 5 hektarea inguruko lursaila, Abeletxe bat egiteko aukera dago. Sarbide onarekin.

ABADIÑO. Bifamiliarra eraikitze lursaila, 1.000 m². Informazio pertsonalizatua.

AMOREBIETA. Euba. Txalet bifamiliarr bat eraikitze lursaila, 3.000 m² inguruko azalerarekin.

//BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

BERRIZ. Baserrir erdia, 1.000 m² lur sailarekin, sukaldea terrazarekin, 3 logela, bainugela, garajea, trastelekua, 180.000.-€

ABADIÑO. Bifamiliarra salgai. 4 logela, hiru komun, sukaldea, egongela, garajea oso polita.

ATXONDO. MARZANA. izugarritzko txaleta salgai ikuspegi bikaina, berri berri!!!

MANARIA. Izugarritzko baserrir salgai. Herrian bertan. Lursaila 3.000 m². Bizitzeko moduan. Oso polita.

ELORRIO. Aldape auzoa. Baserrir berriztatze, 3 hektareako lursaila. Prezioa 125.000.-€

ATXONDO. Baserrir ikusgarria Martza auzoan, 15.000 m²ko lursaila baserriraren inguruan. Teilatu berria. Zonalde pribilegiatua.

BERRIZ. Bº Murgoitio. Bifamiliarr ederra salgai. 6 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 6 bainugela, garaje bikoitza, 12.000 m²ko lursaila. Kokapen ezin hobea, Anbotoa begira.

MENDATA. Lamikiz auzunea. Baserrir bifamiliarra berriztatze. Orientazio pribilegiatua, oso eguzkitsua. Prezio interesgarria.

DURANGO. Atxikitutako eraikin ederra, izkinakoa, guztiz hornitua. Ia berria, estreinatze.

BERRIZ. Baserrir ederra, Murgoitioko zonaldean. Hiru hektareako landa baserrir ondoan.

//BULEGOAK ALOKAIRUAN

ABADIÑO. 40 m²-tik gorako bulegoak, 350 €-tik hasita.

//GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxia salgai 25.000.-€ tik aurrera.

//LOKALAK ALOKAIRUAN

Alde zaharrean, tamaina ezberdineko lokalak alokagai ditugu. Etorri eta galdetu.

//LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

MATIENA. 460 m²-ko lokala salgai, bulegoa, komuna eta aldagela, oso egokia.

www.inmoduranguesado.com

DURANGO 314 m²
Txalet adosatua. 314m² 4 solairutan. Igogailua, distribuzio ona, eguzkitsua eta biztetik.
549.500€

ZALDIBAR 363 m²
FAMILIA BAKARREKO ETXEBIZITZA: 363m² ko etxebizitza 669m² ko partzelan. Eguzkitsua biztetik.
460.000€ / Neg

BERRIZ 3 logela
2 komun
ANDIKONA AUZO: Familia bakarrek etxebizitza. 240m² 3 solairutan. 10.000m²ko lur zoruan.
449.000€

ABADIÑO 160 m²
AUKERAN! 160m²ko alokailua. Edozein aktibitate hasteko prest. Erakuslehoia, bainugela, telebista toma, aire egokitua, alarma
185.000€

ABADIÑO 2 logela
2 komun
ARLOZABAL: 75m². 2 logela, egongela, sukalde ekipatua, 2 bainugela, igogailua, 8m²ko ganbara, garajea.
170.000€

ATXONDO 3 logela
90 m²
KALEBARRIA: Aukera! 3 logela, komun 1, egongela, sukalde ekipatua, 12m²ko despentsa. Altzairuz hornitua. Ganbara eta garajea.
125.000€ / NEG.

//DURANGO.

ASKATASUN ETORBIDEA

3 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. **180.000€** / E.E.Z=F

ANTSO ESTEGIZ

3 logela, sukaldea, egongela eta bainugela. **160.000€** / E.E.Z=E

ERRETENTXU

3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta igogailua. Garaje itxia aukeran **190.000€** / E.E.Z=E

EZKURDI

4 logela, sukaldea, egongela, 3 bainugela eta igogailua. Lehen 321.500€ / Orain **300.000 €** / E.E.Z=F

KALEBARRIA

2 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz eta bainugela. **82.000€** / E.E.Z=G

KURUTZIAGA

2 logela, egongela, sukaldea eta bainugela. **99.000€** / E.E.Z=Bidean

MIKELDI

3 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta ganbara. Lehen 270.000€ / orain **256.000 €** / E.E.Z= E

ZEHARKALE

2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. Lehen 150.000 € / orain **130.000 €** / E.E.Z= E

ZUMALAKARREGI

5 logela, 2 sukalde, 2 egongela, 4 bainugela, igogailua eta garajea. **695.000 €** / E.E.Z= E

//ABADIÑO

ZELETABE

3 logela, egongela, sukaldea, 3 bainugela, terraza, garajea eta trastelekua. Lehen 342.576 € / orain **288.000€**/E.E.Z=E

//ATXONDO

ARRAZOLA ERREPIDEA

2 logela, sukaldea, egongela, 2 bainugela, igogailua, garajea eta trastelekua. **170.000€** / E.E.E=Bidean

//BERRIZ

BERRIZBEITIA KALEA

2 logela, sukaldea, egongela, bainugela eta balkoia. **120.000 €** / E.E.Z= F

BILBO ETORBIDEA

3 logela, sukaldea, egongela-jangela, 3 bainugela eta balkoia. Lehen 195.000€ / orain **180.000€** / E.E.E= E

//IURRETA

FAUSTE

Baserrir lurzorugaz, **220.000€** / E.E.Z=G

SANTA MAÑA

3 logela, sukaldea, egongela bainugela trastelekua eta lursailarekin **125.000€**/ E.E.Z=G

DANTZARI KALEA.

3 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, bainugela. **93.000€**/ E.E.Z=G

//MATIENA

TXINURRISOLO

3 logela, sukaldea egongela balkoiagaz eta bainugela **200.000€** / E.E.Z=F

//MANARIA

EBARISTO BUSTINTZA KIRIKIÑO

3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, 2 balkoi, 2 ganbara. eta txokoa **150.000€** / E.E.E=Bidean Txokoa aukeran

//OTXANDIO

ELIZABARRI

3 logela, sukaldea, egongela, bainugela, balkoia eta lonja 106.000€ / E.E.E=F

//ZORNOTZA

SAN PEDRO KALEA

3 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, bainugela, ganbara eta garajea. **170.000€** / E.E.Z=Bidean

//BERRIAK

DURANGO-MIKELDI

2 logela, sukaldea balkoiagaz, egongela, 2 bainugela, igogailua, garaje itxia eta ganbara. **250.000€** / E.E.Z= F

DURANGO-EZKURDI

4 logela, sukaldea, egongela balkoiagaz, 2 bainugela eta igogailua.. **260.000 €** / E.E.Z=E.



Botikak

BARIKUA, 24 - 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 25 - 09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C -
DURANGO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 -
DURANGO

DE DIEGO Intxaurren 22. - **DURANGO**

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

JAIO-ABENDIBAR
Errekakale 6. - **ELORRIO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15
- **ZORNOTZA**

GUTIERREZ, IBAN Txiki
Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

MELERO, ROSA MARI
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 26 - 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA, 27 - 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 -
DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA, 28 - 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 29 - 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 -
DURANGO

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 30 - 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea
5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG • EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA

Joanese 6. eta aittittek urte gehixau egingo dabez hurrengo egunetan. Barikuen danok alkarraz ospatuko dogu, eta kandelak gogor amatau beharko dozuez. Mosu handi pare bat danon partez!

GOZATU
GOZATEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Zorionak, **Ainara (762. alea)**! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan: Bixente Kapanaga, 9 an.

Zorionak etxeko txikiari, Garaziren, aitaren eta amaren partez. Urtetxo bi pasa dira! Maite zaitugu!

Zorionak gure bi sorgintxoei! Maiatzean **Ekhiñe** eta **Libe** 4 urte egin dituzte! Zorionak eta mosu potolo bat etxekoen partez!

Eguraldia

ZAPATUA 15° / 11° ☁️

DOMEKA 18° / 11° ☁️

ASTELEHENA 19° / 12° ☁️

MARTITZENA 16° / 11° ☁️

EGUAZTENA 16° / 9° ☁️

EGUENA 18° / 9° ☁️

CERAMICAS
MACOBER

Chimeneas
Cerámicas MACOBER

ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA

Eitua industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

A. Urreta
podólogo

Ainara Urreta Jainaga

OINETAKO PATOLOGIAK
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

IMQ **MAPFRE**

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO
Tel./Faxa: 946 215 404

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

“Oiloak burugogorrek dira, baina ez dute behar handirik ematen”

Aitor eta Amaia Arriaga neba-arrebek 500 oilo dituzte Muntzaratzeko Erlia baserrian, arrautza ekologikoak ekoizteko

Aitor Arriaga Lizaur
(Ermua, 1967) eta
Amaia Arriaga Lizaur
(Ermua, 1967 • Erlia
arrautza ekologikoak

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Kalean bizi dira, Ermuan. Baina lotura estua dute Muntzaratzeko (Abadiño) Erlia baserriagaz. Aitor eta Amaia han hazitakoak dira, amaren jaiotetxean, eta hangoak dira euren haurtzaroko oroitzapen asko. Lotura hori ez da inoiz ere eten, eta, orain, arrautza ekologikoak ekoizten hasi dira, baserriari irtenbidea emateko aukera ere badelakoan. Erlia 500 oilo dituzte, eta egunero 450 bat arrautza erruten dituzte; oiloak estresatuz gero, gutxiago. Kontsumo kooperatibetan, denda txikietan eta baserrian saltzen dituzte.

Zerk eroan zaituzte oiloak ekarri eta arrautza ekologikoak ekoiztera?

Amaia Arriaga: Arrautza ekologikoetan oraindik ere hutsune bat zegoela ikusten genuen. Gainera, osotasunean hartuz, baserriagaz bat datorren proiektua dela uste dugu, inguruagaz errespetagarria: ekologikoak osasungarriagoak dira, jaten dutena ekologikoa da, transgenikorik erabili barik...

Gatxa da oiloak gobernatzea?

Amaia: Burugogorrek dira... baina, ez, ez dute behar askorik ematen. Gainera, lau lagun artean dagoagu proiektua. Neba-arreba biok, senarra eta koinata gaude proiektuan sartuta, eta banatu egiten dugu beharra. Bezeraoak lortzea, arrautzak saltzea... nahikoa lan dago hor, baina, bestelakoan, oso eroan garria da oiloekin beharra egitea.

Aitor: Hala da, bai. Gu ere ikasten ari gara. Oilo batetik bestera aldea dago. Ekarrirako lehenengo oiloek harritu egin ninduten, zein mantsoak ziren ikusita. Hurrengo ekarritakoak, oster, oso beldurtiak dira, oso lo-

tsatiak. Ez dute elkarren artean zerikusirik.

Zein da zuen eguneroko beharra?

Aitor: Goizean kanpora ateratzen ditugu oiloak, eta errun dituzten arrautzak batu, sikatu, eta saltzeko prestatzen ditugu. Errutokiak garbitzen ditugu gero. Arratsaldean, berriro garbitzen ditugu.

Zoriontsuak dira zuen oiloak?

Amaia: Baietz esango nuke. Libre daude, euren airera. Gura dutenean jaten eta edaten dute. Iluntzean, oilotokira sartzeko joera dute. Gauean, itxi egiten diegu atea.

Mimo asko eskatzen dute?

Aitor: Mimorik ez, baina ura eta jana, bai.

Amaia: Guraina ur dute, gura dutenean hartzeko, eta jatekoagaz selektiboak dira: ale handia gustatzen zaie. Kanpoan daudenean, bedarra, harrak... jaten dituzte.

Zapore askotako arrautzak ekoizten hasi dira orain...

Aitor: Urdaiazpikoa eta arrautza, bakoitza bere aldetik jatekoa naiz ni. Arrautzari beste zapore bat emateko, babestu egiten duen kutikula kendu behar zaio. Porotsua bihurtzen da eta edozein patogeno sartu daiteke.

Amaia: Irakurri dudanez, nahiko era naturalean lortzen dituzte zapore askotako arrautzak, baina ikusi egin beharko litzake. Hala ere, nik ere gurago dut zaporeak ez nahastu.

Salmenta zuzenaren alde egin duzue apustu. Zergatik?

Aitor: Arrautzak zuzenean banatzea ekologismoa gorenera erotea da, horren zati garrantzitsua da. Bestalde, ezinbestekoa da bertako produktua sustatzea.

Amaia: Ekoizleak sortzen duen guztiari balioa ematea garrantzitsua da; hori estimatzea eta bere tokian jartzea. Salmenta zuzenagaz gertutasun bat lor-

tzen da eta produktuari garrantzia ematea.

Ekologikoa da etorkizuna?

Aitor: Hala beharko luke. Ingurua babestu gura badugu, beharrezkoa da. Horixe da joera. Baina ezjakintasun handia dago oraindik.

Zelako arrautzak erruten dituzte zuen oiloek?

Amaia: Zuringo sendoa eta zapore gozoa dute. Ederra da arrautza ekologikoa jatea.

Berba bitan

Arraultza...

Amaia: patata tortillan

Aitor: tortilla soilean

Plater bat?

Amaia: garbantzuak azagaz

Aitor: arrautzak patatakin eta piper berdeagaz

Pelikula bat?

Amaia: 'La fuente de las mujeres'

Aitor: 'Bizi arteko kartzela'

Ekologikoaren alde arrazoi bat?

Biak: gure ingurua zaintzeko aletxoak jartzeko aukera

Landa eremua ala kalea?

Biak: gaur egun, landa eremua



ALKIMAX

Irtenbideak alokatzen ditugu

BERRIZ Eitua industriagunea, 71C • Tel.: 946 824 550

GERNIKA Golko Ibarra, 26 • Tel.: 946 271 310

alkimax@alkimax.net

www.alkimax.net



Mitsubishi, Manitou eta STILL... 1.500 kilotik gorako karga erabilgarria